

GAIA: NAZIOARTEKO HEZKUNTZA • EKARPENAK: HABANAKO ESKOLA BAT •
EKARPENAK: BIRBIRA. ZABORRA BIRZIKLATUZ • GALDEIDAZUE: TERAPEUTA
OKUPAZIONALAK • URAREN ZENTROA • ATZEKO ATETIK: EGOITZ LASA

hh
hik hasi

145

4 EURO • 2010EKO OTSAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



ELKARRIZKETA

IDOIA FERNANDEZ

Irakasle ona ez da jaiotzen, egin egiten da


+5 urte

Aitak ez dakit ze plan daukan olagarroarentzat. Baina nik badaukat bat, maskotatzat hartzea.



OLAGARRO BAT BAINUONTZIAN
Leire Bilbao • Morkots

+8 urte



Hamahiru txoriren txiruliruliak dituzu orrialde hauek, edo hamahiru poetaren hegaldiak.

TXORI KANTARIAK POETA HEGALARIAK
Batzuk • Elena Odriozola

Gure LITERATURA zutaz mintzo da

www.elkarargialetxea.com

elkar

+8 urte



**LOTSATIA NAIZ
ETA ZER?**

Antxine Mendizabal • Jokin Mitxelena

Eki oso mutiko lotsatia da. Ikasgelako neska bat atsegin du: Lore. Baina ez da ausartzen bere urtebetetzeko txokolatadara gonbidatzera.

Mitxel Murua • Julen Tokero
ANE PIRATA

+6 urte



Pirritzek, Porrotzek eta Marimototsek bere lagun handi bati bisita egin zioten behin ospitalean. Ane izena du lagunak eta pirata izan nahi du.

aurkibidea



8
gaia

NAZIOARTEKO HEZKUNTZA

Europako hezkuntza urduritasun eta zalantza uneak igarotzen ari da. Eta gertatzen ari diren jendarte, ekonomia, demografia, teknologia eta lan eremuko aldaketa horien guztien aurrean, Europak hezkuntzaren alorreko erantzunak behar ditu.



15
elkarrizketa

IDOIA FERNANDEZ

EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eskolak emateaz gain, unibertsitateko Hezkuntza Aholkularitza Zerbitzua zuzentzen du.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

NAZIOARTEKO HEZKUNTZA

EGOERAK ETA ERRONKAK

16 elkarrizketa

IDOIA FERNANDEZ

26 ekarpenak

Habanako Miguel Basilio Diaz ikastetxea

Teresa Susinos

28 ekarpenak

Birbira. Zaborrak birziklatuz

Amaia Zinkunegi eta Ines Gereka

30 galdeidazue

Zein da terapeuta okupazional baten egitekoa? Zertan laguntzen du? Garbiñe Guerra eta Itziar Landa

33 berriak

40 nora joango gara?

Uraren Interpretazio Zentroa

Leitzaran bailaran galdua

42 Atzeko atletik

Egoitz Lasa

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Izaskun Beraza eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: hik hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2010-01-27). Kopurua: 3.700 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi_k
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararutzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala otsaila

Hezkuntza Deialdia: elkarlana bideratzen



Hezkuntza arloko eta jendarteko partaideak bildu dira Hezkuntza gaineko gogoeta egin eta aurrera begirako urratsak finkatzeko.

Euskal Herriak Bere Eskolak — Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko Herri Mugimenduak (EHBE)—, deia luzatu digu gurasooi, ikasleoi, langileoi eta Hezkuntza Komunitatea, oro har, osatzen dugun guztioi.

Gurekin batera, jendartea osatzen duten gainerako kide oro deituak izan dira, era berean, hezkuntzaren gainean gogoeta egitera. Izan ere, hezkuntzak, eskolan biltzen garen lagunen kezka izateaz gain, jendartearen hizpide izan behar du, guztion hausnarketa, ardura eta ekarpena behar dituen gaia baita.

Hezkuntza Deialdia, oraingoz, Donostian egin zen bilera irekian parte hartzeko izan da. Haren aurrekaria, *Sarasateko adierazpena* izan zen. Adierazpen hartan, hezkuntzako ehunaka kidek, Hezkuntza Sistema propioa izateko dugun eskubidea aldarrikatu zuten eta, era berean, alde guztietatik datozkigun inposaketei aurre egiteko beharra azpimarratu zuten.

Deiari erantzundako gurasoek diote beren borondatez ahal dutena egiten parte hartzen dutela ikastetxeetan, Hezkuntza administrazioek, ordea, ez dituela kontuan erabakiak hartzeko garaian.

Langileek, beren aldetik, haien kezka handia adierazi dute. Administrazioek ezarritako aldaketak langileek aplikatu eta eraman beharko baitituzte aurrera eskoletan, hain zuzen. Haatik, aldaketa horiek langileekin partekatu gabe egin dituzte eta, gainera, inposizioaren bidea hartu dute haiek indarrean jartzeko.

Aldaketa, diseinu, nahi eta ezin horien subjektuak, dudarik gabe, ikasleak dira; hezkuntza alorrean hartutako edozein erabakiren jopuntua ikaslea bera baita. Hala ere, esanak esan, ikasleek ez dute sentitzen ekimen horiek haien parte hartzea bultzatzeko direnik.

Euskal Herria baden edo ez den;

euskaraz bizi behar dugun edo ez dugun; zein curriculum, non erabakia, zein eduki eta balio landu behar ditugun, finean, ezbaian daude.

Bistan denez, Hezkuntza Komunitateko partaideek hala adierazita, auzi horien guztien gaineko gogoetetatik eta erabakietatik at daude. Zer esan, beraz, jendarteaz. Eta, orduan, administrazioek zein zilegitasunez eta noren babesez eta adostasunez ari dira hartzen ezarri dituzten erabakiak?

Hezkuntza gu guztion premia larrian da. Hezkuntza komunitatearen parte garenok, lehenik, eta jendarte osoak, hurrenik, aurrera begirako urratsak finkatzeko eta adosteko eztabaidatu eta hausnartu behar dugu. Hori zor diogu gaurko, eta batez ere, biharko jendarteari. Eta horretan denok parte hartu behar dugu.

Antola gaitezen gu geu. Hezkuntza, mugi!

kronika

Seaskak Baionan duen Bernart Etxepare Lizeoak ikasle metaketa handia izan du aurten, 211 ikasle hain zuzen. Bertan orientazio ikasturtea eta Batxilergoko bi ematen direla kontutan izanda, ikasturteko 70 ikasle ateratzen dira. Eraikuntza erabat beteta daukate dagoeneko. Baina Seaskak matrikulazioan izandako gorakada aintzat hartuta, bost urteren buruan egun duten ikasle kopurua asko igoko dela aurreikusten dute ikastetxeko arduradunek. Hori dela eta, aurretik hasiko dira egoera horri erantzuteko neurriak hartzen: datorren udan eraikuntza berritzeko eta zabaltzeko lanak jarriko dituzte martxan. Oihana Ikastolarekin partekatzen duten eraikuntzan behar adina leku ez eta alboko eraikin batean prestatu behar izan dituzte zenbait gela. Eraikuntza hori udal elkargoarena da eta bertan hasiko dira berritze lanak datorren udan.



Hezkuntza Sistemari aldaketak egin nahi dituzte Espainiako arduradunek

Angel Gabilondo Espainiako Hezkuntza ministroak, iaztik lantzen ari den Hezkuntzarako itun sozial eta politikoaren ildo nagusiak aurkeztu zizkien urtarrilaren 20an erkidegoetako Hezkuntza sailburuei. Estatuko autonomia erkidegoek hezkuntzaren alorrean egiten dituzten lege aldaketak Espainiako Parlamentuan onartu behar izatea eta DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila ikasleak "orientatzeko" ikasturtea bihurtzea proposatu zuen, besteak beste, Gabilondok.

Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza legeek Madri-

len onarpena behar izango dute. Hori da behintzat Gabilondok proposatutakoa. Hezkuntza ministroaren arabera, Espainiako Parlamentuaren bi herenek onartu beharko dituzte erkidegoetan abiatutako hezkuntza legeak edo arautegi aldaketak. "Arauen inguruko egonkortasuna" bultzatze aldera, Espainiako bi alderdi nagusiak, hau da, PSOE eta PP, erreformekin bat etortzea bermatu nahi du neurri horren bidez.

Bestalde, DBHko 4. mailaren plan teamenduan er aldaketak aurreikusi ditu Gabilondok. Proposatu du derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo bi aukeretara egokitutako ikasturtea bilakatzeko. Hau da, Batxilergora bideratutako adar bat eta Lanbide Heziketara bideratutako beste bat eskaintzea. Dena den, bat edo beste aukeratzeko ez luke ikaslea baldintzatuko derrigorrezko hezkuntzaren ondoren egin nahi dituen ikasketak aukeratzeko unean.

Hizkuntzen inguruan ere zeresana sortu du itunak. Euskara, katalana eta galiziera irakas hizkuntza nagusi bihurtzeko urratsen aurrean, gaztelaniazko hezkuntza bermatzeko "ahalegin handiagoa" eskatu dute dagoeneko PP gobernuan duten erkidegoek.

Egia non dagoen ez dakit, baina badakit haren bila dabilenak hurbilago duela.

Luis Berrizbeitia



EHBek mobilizaziorako deia egin du martxoaren 13rako, Bilbon

Inposaketarik Ez! Euskal Herriak Bere Hezkuntza goiburupean, mobilizaziora deitu du martxoaren 13rako, Bilbon, EHBE Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak. Hala adostu zuten joan den urtarrilaren 14an ekimena osatzen duten irakaslek, hezitzailek, ikaslek, gurasok eta herritarrek, Donostian egindako batzar irekian.

EHBEn ustez, Espainiako eta Frantziako gobernuak beren hezkuntza sistema "inposatzen" ari dira. "Gainera, euskal hezkuntzaren aurkako eraso bizian ari dira azkenaldian". Horregatik, egin diote deialdia hezkuntza munduari eta jendarte osoari: "Alarma

gorri guztiak piztuta daude, garaia da elkarrekin, guztiok batera, inposaketari, adoktrinamenduari eta uniformizazioari ezetz esateko", adierazi zuten.

Aldi berean, hezkuntza eredu nazional propioa sortzeko beharra aldarrikatzeko eta elkarlanean eraikitzen jarraitzeko ordua dela diote. Sistema horren oinarriak izan beharko lukete, besteak beste, EHBEn arabera, haur eskola euskaldun eta hezitzaileak, euskalduntzea bermatuko duten hizkuntza ereduak, euskal curriculumak, Euskal Herrirako berezko unibertsitatea...

Eskuorriak sarean

Horiek guztiak aintzat hartuta, "euskal jendarteari euskal irakaskuntza jasaten ari den erasoaldiari erantzuteko" deia egin diote. Datorren martxoaren 13an jarri dute hitzordua, Bilbon. "Denok batera erantzun zabal eta indartsua" emateko garaia dela uste dutelako.

Bestalde, EHBek Hezkuntza Deialdiaren oinarria jasotzen duten eskuorriak jarri ditu sarean. Hain zuzen, www.euskaleskola.org webguneak berauek inprimatu eta zabaltzeko aukera ematen du.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskola publikoetako jangeletako langileek bi greba egun izan zituzten urtarrila amaieran CCOO, ELA, LAB eta UGT sindikatuek deituta. Sindikatuek emandako datuen arabera langileen %85ek egin zuten greba lehendabiziko egunean. Bigarrean, aldiz, langileen %92k egin zuten greba Bizkaian, %91k Gipuzkoan eta %73k Araban.

Dituzten lan baldintzak gainerako langileenekin berdintzeko eskatzea izan zen protesten helburua. Besteak beste, soldata %5 igotzeko eskatzen dute, irakasle ez diren eskoletako beste langileen baldintza parekoak izan ditzaten. Era berean, langileentzako trebakuntza eta begirale bakoitzak zaindu beharreko haur kopurua gutxitu dadila eskatzen dute. Dena den, 2 eta 3 urteko haurren monitoreen %80k eta sukalde eta jangeletako langileen %10ek lanera joan behar izan zuten. Sindikatuak haserre agertu ziren Eusko Jaurlaritzak zehaztutako gutxieneko zerbitzuekin. Urtebetean bederatzi greba egin dituzte langileek, eta Eusko Jaurlaritzak eta patronalak arduraz jokatzeko ez badute, protestekin jarraituko dutela adierazi dute.

GAIA

Nazioarteko hezkuntza

Egoerak eta erronkak





Europako hezkuntzaren egoera

Mundu osoa, eta bereziki Europa, aldaketa garaian murgilduta dago. Aldaketa horiek jendarteko alor guztietan dute eragina, beraz, baita hezkuntzan ere. Ez da krisialdi bat gehiago. Ez da betikoa; eraldaketa prozesu sakona da. Europako hezkuntza urduritasun eta zalantza uneak igarotzen ari da. Eta gertatzen ari diren jendarte, ekonomia, demografia, teknologia eta lan eremuko aldaketa horien guztien aurrean, Europak hezkuntzaren alorreko erantzunak behar ditu.

Gaian agertzen diren hasierako ideiak Bartzelonako Unibertsitateko Francesc Raventós Santamariak egindako lanetan daude oinarrituta.

Europako herrialde guztietan hezkuntza arazoek maiztasun handiz azaltzen jarraitzen dute, bereziki eskola eremuan.

Finlandia eta Japonia eskola emaitza onak dituzten herrialdeak dira, eta nazioarteko beste herrialdeekin alderatuta oso ongi sailkatuta daude. Horietan ere, ordea, arduratuta daude zenbait eskolek duten funtzionamenduari. Oso kezkatuta daude eskola porrotarekin, indarkeriarekin, eskola uzten duten ikasleen kopuruarekin, giza eskubideen errespetuarekin, eta beste hainbat hezkuntza arazorekin ere.

Azken aldian hizkuntza bera erabiltzen ari direla antzematen da; baita politika bateratuak ere, besteak beste, malgutasunaren, autonomiaren eta emaitzen kontrolaren bidean. Orain arte, Europako hezkuntza politikaren ardatz nagusia aukera berdintasuna, integrazioa eta jendarte kohesioa ziren. Une honetan, badirudi aldatzen ari dela, eta, helburu nagusiak, lehiakortasuna eta lehia ekonomikoa direla.

Europak ez dauka batasun etnikorik, ez dauka jendarte kohesiorik, ez politikorik, ez linguistikorik, ez hezitzaileerik ezta kulturalerik ere. Gure kontinenteak, inmigrazio handia du. Ondorioz, aldaketa demografiko handiak izaten ari da, eta horrek eragin argia du

hezkuntza sistemetan. Bestalde, Europak gero eta biztanleria zaharragoa du, eta kontinente barruko inmigrazioa gero eta handiagoa da.

Europako Batzordeak ezagutzen oinarritutako ekonomia berriak ekarriko dituen aldaketak eta erronkak onartu zituen Lisboan (Portugal), 2000. urtean. Ondorengo helburu estrategikoa hitzartu zuen 2010. urterako: "Ezagutzan oinarritutako munduko ekonomia lehiakorrena eta dinamikoena bilakatzeko: lanpostu hobe eta gehiagorekin, eta jendarte kohesio handiagoarekin ekonomikoki modu jasangarrian hazteko gai izanik".

2010ean gaude eta aurrerapen batzuk gauzatu badira ere, ipar Europan (Suedia, Suomi...) nagusiki, ez da aurreikusitakoa bete. Helburuak lortzekotan, irakaskuntza hobetu beharko litzateke izugarri; baita haren kalitatea ere.

Horrez gain, berdintasun soziala ere hobetu beharko litzateke. Izan ere, Europako Batasuneko estatu pobreenetan (Portugal, Grezia eta Espainia) biztanleen errentaren arteko desberdintasuna handia da, estatu aberatsetan, aldiz, aldeak txikiagoak dira (Danimarka, Suedia, Suomi, Austria...).



G

Hezkuntza antolaketa

Nola antolatu Hezkuntza? Hezitzaileak, familia, komunikabideak...

Europa, orokorrean, hezkuntza sistemen dezentrazio eta malgutasunerako bidean dabil. Dena den, jatorri dezentralizatzailea duten hainbat herrialdeetan (Alemania, Belgika, Danimarka, Erresuma Batua) zentralizazioerako joera izaten dute zenbaitetan. Aitzitik, zentralizazioerako ohitura eta antolakuntza orokorra duten herrialdeetan, Espainian eta Frantzia esaterako, dezentrazioerako behar nabarmena antzematen da.

Bereziki Europa iparraldeko herrialdeetan, udalek hezkuntza eskuduntza asko dituzte. Espainian eta Frantzia, berriz, herrietako administrazioek funtzio gutxi dute sektorean.

Europako hezkuntza modu sistemiko eta malguagoan ulertu behar da. 90eko hamarkadaren hasieran, Suediako zenbait ikertzailek proposatu zuten hezkuntza sistemak ez zutela hain zurrinak izan behar. Orain arte, hezkuntza, bere ibilbidetik behin bakarrik pasatzen zen tren izan da. Hau da, tren galtzen zuen edonor salduta gertatzen zen. Hezkuntza sistemak, ordea, etengabe harremanetan egongo den sare zabala behar du. Nahi dugunean edo komuni zaigunean tren hori hartu eta uzteko aukera eman behar du hezkuntza sistemak. Horrek guztiak, baina, malgutasun handia eskatzen du, komunitateari hezkuntza zerbitzu ona



eskaini behar zaio, jendarte erakunde-en adostasuna bilatu behar da, sektore pribatua eta publikoa batu behar dira, enpresak, hedabideak...

Irakasleen egitekoa

Azken urteetan hezkuntzaren dezentrazio mailakotua gauzatzeko ahaleginak egin dira. Eta, orokorrean, jendartearen esku ahalmen gehiago uzteko saiakera egin da. Araudi berriek emandako aholkuak bide horretan doaz; eskumenak esparru nazionaletik eskualde edo erkidegoetara dezentrazioa gomendatzen dute. Eta horietatik, ondoren, udaletara pasatu daitezela. Baina, bereziki, ikastetxeetara ailegatu behar dute eskumeneak: horrela, hezkuntza komunitateak parte hartze handiagoa izango baitu hartu beharreko erabakietan.

Bien bitartean, irakasleak ezagu-

tzaren gidaria eta jarraitzailea izan behar du, eta teknologia berriek lagundu egin behar diote. Besteak beste, edukiak itota ibili beharrean, beren ikaskuntzaz arduratzeko aukera izan dezaten. Hau da, irakasleek ere ikasten ikas dezaten.

Sarritan drogekin edo indarkeriarekin lotutako jendarte arazoak konpondu beharko dira. Horiei irtenbidea ematea ez da irakasle bakar baten lana, irakasle taldearena eta ikastetxearena baizik. Hori guztia lortzeko, gaur egun, herrialde eskandinaviarretan egiten den bezalaxe, ezinbestekoa da ikastetxei autonomia gehiago ematea. Zuzendariari eta gidaritzari gaitasuna duten teknikariari indar edo botere gehiago eman behar zaie. Azken batean, ikastetxeek ikaskuntza erakundeak izan behar baitute.

UNESCOK behin baino gehiagotan



nabarmendu du, egoera horretan, irakasleak ez direla arazoa, irtenbidea baizik. Hain zuzen ere, beraiek dira hezkuntzaren kalitatearen eragile nagusiak. Irakasleen lankidetzeta eta onarpena kontuan hartu gabe alferrik litzateke hezkuntzaren erreforma egitea. Horrela egin diren erreformek ez dute sekula arrakastarik izan Europan.

OCDE Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen baitan dauden Europako hainbat herrialde aberatsetan kezkatuta daude dagoeneko irakasleak falta zaizkielako edo etorkizunean faltako zaizkiela nabaritu dutelako. Besteak beste, Ingalaterra, Gales, Herbehereak, Belgikako hainbat komunitate, Danimarka, Austria eta abar pairatzen ari dira irakasle eskasia. Herrialde horietako irakasleek sarritan sentitu dute beraien lanari ez zaiola behar besteko garrantzia ematen. Eta, era berean, beren lana gero eta mugatua goa dagoela sentitzen dute; hau da, euren autonomia eta sormena murrizten doazela sentitzen dute, gero eta arau eta kontrol gehiago ezartzen dizkietelako.

Ez dago zalantzarik irakasleak duen

jarrerak zuzenean eragiten duela ikasleengandik lortzen den etekinean. Horrexegatik, Norvegiar eta Finlandiar esaterako, maisu-maistra eta ikasleak arteko elkar eragina ezinbestekoa da. Irakasleek, komunikatzeko, motibatzeke, bideratzeko, babesteko eta abar duten modua erabakigarria da ikaslearen errendimenduan. Azken batean, irakasle txar batek ikasleak gai baten inguruan izan dezakeen interes apurra guztiz zapuztu dezake. Irakasle on batek, berriz, badaki zer egin behar duen ikasleengan jakin-mina eta interesa pizteko: esperientzia berriak eskaintzen ditu, ikasleak eman dituen urratsak goraiatzen ditu, arrakasta lortu ez arren lanean jarrai dezan akuilatzen du eta abar.

Bestalde, aipatu dugu ikastetxeek ikaskuntza erakundeak izan behar dutela. Hori horrela izango bada, ziurrenik beharrezkoa izango da eskolaren eta familiaren arteko kontratu berri bat. Kontutan izan behar baitugu familia asko aldatu dela, eta, bitartean, eskolek garai batekoen oso antzekoak izaten jarraitzen dutela, oinarritzkoen behintzat.

Irakasle idealaren profilari dago-kionez, akaso, gauza gehitxo egin behar ditu; edo, behintzat, izan behar dituen kompetentzien zerrenda luzeegia dela esan daiteke. Besteak beste, honakoak izan behar du: balioaniztuna, aditua, aldatzen lagundu behar du, gogoe-tarako joera izan behar du, ikertzailea, intelektuala, kritikoa eta abar. Gainera, edukiak menderatu behar ditu, ikaskuntza bultzatu behar du, curriculum interpretatu eta ezarri behar du, talde bakoitzari dagozkion eduki eta metodologia egokienak hautatu behar ditu, tokiko kultura eta errealitatea ulertu behar ditu, kultura aniztasunean oinarritutako hezkuntza bultzatu behar du, elkarriketa sustatu behar du, teoria eta praktika uztartu behar ditu, besteak beste. Era berean, talde lana bideratu behar du, proiektu berritzaileak egiteko proposamenak egin behar ditu etengabe. Bien bitartean, ikasleek izan ditzaketen jendarte arazoak, osasunari dagozkionak edo arazo afektiboak antzeman behar ditu, eta, ahal izanez gero, konpondu. Gainera, ikasleei lagundu behar die sortzaileak izaten, arazoei aurrea hartzen eta egoera berrietara egokitzen, kritikoak izaten, arazoak identifikatzen eta irtenbideak bilatzen. Eta horrekin guztiarekin nahiko ez balitz, gurasoen parte-hartzea sustatu behar da, irakasle bakoitzak bere beharrak eta arazoak ere izango dituela kontuan hartu behar da...

Eta noski, eginkizun horiekin guztiekin batera irakasle batek teknologia berriak menperatu behar ditu. Munduan gertatzen diren arazoen ezagutza zabala eta sakona izan behar du, eta nola ez, ikaskuntza gidatzeko gai izan behar du.

Irakaslearen kompetentzien zerrenda amaigabe hori, baina, are gehiago luza daiteke. Esaterako, inmigrazioak



Hezkuntza erronkak

hezkuntzan sortzen dituen arazoei ere aurre egin behar baitzaie. Zerrenda luze horrek, zalantzarik gabe, edozein pertsonaren mugak gaintzen ditu. Horixe al da Europako egungo hezkuntza politikekin eraiki nahi dugun agertokia? Horixe al da sortu nahi dugun irakaslea?

Zorionez, oraino, ez dago zehaztuta irakasle batek eta ikastetxe batek nolakoak izan behar duten. Atea zabalik dago, eta horixe zehaztea da herrialde bakoitzak duen erronka nagusia. Beharbada, lehenik eta behin, irakasleek egiten duten lana aitortu beharko litzateke, eta egindako lanaren arabera merezi duten diru-saria eman. Irakasleei arreta gehiago jartzea beharrezkoa da, hezkuntzaren gaineko edozein hobekuntza egin baino lehen.

Horrela egin ezean, irakaslearen lanak balioa galduko du eta hezkuntzako langile soil bat baino ez da bilakatu. Europa osoa kontuan hartuta soldata baxua duen langilea izango da, gainera. Eta sarritan, administrazioarentzat, bere helburuak eta proiektuak gauzatzeko bidean traba baino ez da izango.

Askorentzat, irakaslearen lana krisian dago, eta egoera horrek egonezina sortu du ia Europa guztian. Eta, antza, Espainiako eta Frantziako estatuetan Bigarren Hezkuntzako irakasleen artean somatzen da gehien.

Erronkak, familian, eskolan eta hedabideetan

Etengabe aldatzen ari diren jendar-te eta lan munduari hausnarketa, koherentzia eta arrazionaltasuna eskain diezaiekete hezitzaileek. Baina etorkizu-

nean Europak izango dituen erronkak ez dira eskola eremura mugatzen. Erronka horiek ikastetxeetan ez ezik, familian, hedabideetan, lan munduan eta jendarteetan bertan egongo dira.

Familiek beren seme-alaben hezkuntza gero eta alboratuago dutelako kezka oso zabalduta dago, eta familiek ezin dute ardurara hori baztertu. Seme-alabei nahi dutena egiten utzi, eta, aldi berean, irakasleei ohitura txar horiek zuzentzeko eta hiritar onak bilakatzeko eskatzen ari dira. Eta helburua lortzen ez denean, errua telebistarena eta eskolarena izaten da. Zenbait herrialdetan, irakasleen erdiak baino gehiagok uste du familiek ez diotela behar besteko arreta jartzen seme-alaben hezkuntzari.

Baina eskolak eta familiak, baka-

rrik, ezin diote erronka guztiei aurre egin, eta enpresa pribatu eta publikoen inplikazio falta ere somatzen da. Ez diote etorkizunari begiratzen, eta ez diete jaramonik egiten hezkuntzarekin dituzten konpromisoei.

Bestalde, hedabideek ere ardurara handia dute. Komenigarria litzateke, gutxienez, ikus-entzunezko merkatuak hedatzen dituen balioak errespetuarekin, hiritartasunarekin, tolerantziarekin eta demokraziarekin etengabe ez kontrajartzea. Haurrentzat egindako saioren gabezia izugarria da, eta ia ezinezkoa da telebista hezitzaileaz hitz egitea. Behar baino gehiagotan, hedabideek haurrentzat inondik inora eredugarriak ez diren pertsonak eta egoerak proposatzen dituzte jarraitu beharreko eredu edo idolo gisa.





Europako hezkuntza erronka nagusiak

Federico Mayor Zaragoza UNESCOko zuzendari ohiak bederatzia erronka proposatu zituen 2020. urteko hezkuntzari begira:

1. Irakasleriaren konpetentzien etengabeko eguneratzea. Hezkuntzaren kalitatea, irakasleen kalitatea eta dedikazioaren baitan dago. Baita ikasleekin eta haien familiekin dituzten harremanen baitan ere.
2. Irakasgai guztietako eduki hezitzaileak. Hiritar arduratsuen jarrerak lantzeko beharrezkoak diren balioei eta hiritartasun-heziketari arreta berezia jarritz. Azken urteetan, matematikak eta hizkuntzek berariazko garrantzia izan dute Europako Batasunean, ia beti ziklotan egituratuta.
3. Sare elektronikoak ikaskuntzarako tresna lagungarri gisa barneratu eta baliatu behar dira. Beti ere, kontuan izanda, horietara sarbidea ez izateak bazterketa sor dezakeela.
4. Hezkuntza testuinguruen ulermena aldatu behar da. Ezagutza berrien ekarpenak kontuan eduki beharko lirateke, baita prozesu kognitiboaren kontrola eta horien gaineko ikerketak ere.
5. Etengabe garatzen ari den ezagutza garaikideari arretaz begiratu behar zaio. Lehentasuna izan behar dute, batetik, ezagutza zientifikoak; eta, bestetik, erreferentzia kultural, etniko eta anitzak eraikitzeko aukera eskainiko duten ezagutza historiko eta sozialek.
6. Bizitza osoan zehar jakin behar da heziketari eta ikaskuntzari eskaintzen zaion denboraren eta lanari edo aisialdiari eskaintzen zaion denboraren arteko harremana kudeatzen.
7. Hezkuntza erakundeek kudeaketa arinagoa eta ez hain hierarkikoa izan beharko lukete. Horrela, hezkuntza enpresa autonomoagoak bilakatzeko. Hezkuntza erakunde publiko zein pribatuak aktiboagoak, dinamikoak eta burujabeak izan beharko lukete.
8. Botere publikoaren parte hartzeak hezkuntza sistemantzako estrategiak ezarri beharko lituzke. Besteak beste, finantziazio sistema berriak pentsatuz eta hezkuntzaren alorreko elkarlana eta akordioak ezarriz: esaterako, komunikazioarekin eta edizioarekin harremana duten enpresekin hitz eginez.
9. Hezkuntza erakunde ezberdinak, formalak, informalak, urrutikoak eta abar garatu beharko dira. Eta, gainera, ikuspuntuaren aniztasuna baliatu beharko lukete elkar aberasteko. Horrela, baliabideetara edo teknologia berrietara ailegatzeko etengabe hazten ari diren ezberdintasunek sortutako erronkak gainditu ahal izango dituzte.

UNESCO Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeko zuzendari ohiak nabarmendu duenez, gaur egungo ikastetxeen antolamendua lau zutabetan oinarritzen da guztiz ia: irakasle bat, irakasgai bat, ordu bat eta gela bat.

Hori dela eta, Mayor Zaragozaren ustez, eredu berriekin egin behar zaio aurre hezkuntza krisiari. Talde pedagogiko berriak, esperientzia berriak eta etorkizunerako ideia berriak behar dira.

Beharbada, Europako hezkuntza krisiari aurre egiteko baliagarria izango

litzateke curriculum europear berri bat. Zati batean, behintzat, elkarren antzeko Lehen eta Bigarren Hezkuntza osoarentzat. Baina homogeneous, egozentrikoa eta eurozentrikoa izan beharrean, askotarikoa eta elkar aberasteko aukera emango duena izanik.

Hezkuntza konpromisoak

Analfabetismoa munduan

Thailandiako Jomtien hirian egin zen 1990ean UNESCOren Munduko Hezkuntzaren Biltzarra. Oinarrizko hezkuntza haur, gazte eta heldu guztien esku jartzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartu zuten orduan Nazio Batuen Erakundeko kide diren herrialde guztiek.

Hamar urte beranduago, Dakarren (Senegal) egin zen Munduko Hezkuntzaren Foroa *Guztientzako hezkuntza: gure konpromisoak bete* lelopean. Biltzar hartan, hezkuntzari dagokionez, honakoa adostu zuten nazioarteko agintariek: oinarrizko lehen hezkuntza unibertsala bihurtzea.

Hitzetatik konpromisora

Dakarreko foro hartan, hamar urte lehenago Jomtienen adostutakoak garatzeko akordio politikoak zehaztu zituzten. Horrela, 2000-2015 urteen artean munduko pobrezia murrizteko estrategia orokor baten baitan, sei helburu nagusi ezarri zituzten guztientzako oinarrizko hezkuntza lortzeko.

Gaur egun, mundu osoan 80 milioi haur inguru daude (%60 neskek) oinarrizko hezkuntza jasotzeko aukerarik gabe. Gainera, herrialde guztietan (industrializatuak edo garapen bidean daudenak), analfabetismo funtzionala oso arazo larria da. Egundik 800 milioi dira alfabetatu gabeko helduak munduan.

Bestalde, 100 milioi haur baina gehiagok eta milaka helduek dutelortzen oinarrizko hezkuntza amaitzea; eta beste milaka dira amaitu arren beha-

rezko ezagutza eta oinarrizko gaitasunak bereganatzen ez dituztenak.

Helburuak betetzeko epea, baina, amaitzen ari da. Izan ere, 2015ean jarri zuten muga Dakarren egindako foroan, eta bost urte baino ez dira falta. Joan den urtarrilaren 19an UNESCOk kaleratutako hezkuntzaren inguruko txostenaren arabera, oso murrizta da helburuak erdiesteko aukera. Datu horien arabera, orain arteko erritmoan jarraituz gero 2015en 56 milioi haur baino

gehiago egongo dira eskolatu gabe. Eta egoera hori herrialde txiroenек pairatuko dute bereziki: “Herrialde aberatsak krisialditik ateratzeko bidea egiten ari diren bitartean, herrialde txiro askok atzerakada somatuko dute beraien hezkuntza sistemetan. Ezin dugu haur belaunaldi oso bat galdu eta pobrezia-tik irteteko aukera eman diezaiekeen hezkuntzarik gabe utzi”, adierazi zuen Irina Bokova UNESCOko zuzendari nagusiak.

Dakarren hartutako konpromisoak

- 1.- Lehenago haurtzaroaren heziketa eta babes integrala zabaldu eta hobetu, bereziki haur ahulentzat eta laguntza gehien behar dutenentzat.
- 2.- Munduko haur guztiek 2015a baino lehen kalitatezko, doako eta derrigorrezko Lehen Hezkuntzarako sarbidea izan dezaten eta amai dezaten arduratu. Bereziki, egoera zailetan dauden edo gutxiengo etniko bateko kide diren neska-mutilentzat.
- 3.- Gazte eta heldu guztien ikaskuntza beharrei erantzun, hezkuntza egoki baterako bidezko sarbidea eta bizitza osorako prestakuntza programak eskainiz.
- 4.- Alfabetatutako helduen kopurua, batez ere emakumeena, 2015. urterako %50 igotzea. Eta, ere berean, heldu horiei guztiei oinarrizko eta etengabeko hezkuntzarako bidezko sarbidea erraztea.
- 5.- Lehen eta Bigarren Hezkuntzan generoen arteko ezberdintasunak deuseztatu 2005. urterako eta hezkuntzaren alorrean genero berdintasuna lortu 2015a baino lehen. Bereziki, neska guztiei kalitatezko oinarrizko hezkuntzarako sarbidea eta errendimendua bermatuz.
- 6.- Hezkuntzaren alderdi kualitatibo guztiak hobetu behar dira. Bereziki irakurketa, idazketa, aritmetika eta oinarrizko konpetentzien ikasketan emaitzak lortu ahal izateko helburuarekin parametro altuenak ziurtatuz.

Konpromiso horiek guztiek alfabetazioa dute helburu. Azken batean, ezberdintasunei eta pobrezia-ri aurre egiteko ezinbesteko faktorea delako.



Lisboako ituna

Europako Batasuna osatzen duten 27 herrialdeek, 2007ko abenduan, Lisboan (Portugal) adostu zuten itunak honako artikulua biltzen ditu hezkuntzari dagokionean:

Hezkuntza, Lanbide Heziketa, gazteak eta kirola

165. artikulua

1. Batasunak kalitatezko hezkuntzari lagunduko dio. Batasuneko kideen arteko elkarlana sustatuz, eta beharrezkoa izango balitz, herrialde horien ekimenak lagunduz eta osatuz. Betiere, bakoitzak bere hezkuntza sistemen antolaketaren eta edukien gainean duen ardura eta herrialde bakoitzeko aniztasun kulturala eta linguistikoa errespetatuz.

Batasunak kirolaren alderdi europarrak sustatzen lagunduko du bere ezaugarri zehatzak kontuan hartuz. Besteak beste, boluntarioen lanean oinarritutako egitura eta bere funtzio sozial eta hezitzaileak.

2. Batasunaren lana ondorengo alorretara bideratuko da:

— irakaskuntzan dimentsio europarra garatzea, bereziki batasuneko kideak diren herrialdeetan hizkuntzen ikaskuntzaren eta hedapenaren bitartez,

— ikasle eta irakasleen mugikortasunari lagundu, bereziki tituluen eta ikasketa aldien aitortpen akademikoak sustatuz,

— ikasketa zentroyen arteko elkarlana bultzatuz,

— Batasuneko kide diren estatuen artean prestakuntza sistemen inguruko informazio eta esperientzien trukaketa areagotuz,

— gazteen eta jendarte hezitzaileen trukeak areagotzen saiatu, eta, era berean, gazteek Europako bizitza demokratikoan gehiago parte har dezaten butzatuz,

— urruneko hezkuntzaren garapena sustatuz,

— kirolaren dimentsio europarra garatu, lehiatzeko aukera pertsona guzkiei zabalduz eta kirol erakundeen arteko elkarlana sustatuz. Eta, bereziki, kirolari gazteen segurtasun fisikoa eta morala babestuz.

3. Batasunak eta bere kide guztiak elkarlana sustatuko dute gainerako herrialdeekin, eta hezkuntza zein kirol gaitan eskumena duten nazioarteko erakundeekin, eta bereziki Europako Batzordearekin.

166. artikulua

1. Estatu bakoitzak lanbide heziketaren alorrean egiten dituen ekimenak indartu eta osatuko dituen politika garatuko du Batasunak. Betiere, estatu

bakoitzak Lanbide Heziketaren edukien eta antolamenduaren inguruan duen ardura errespetatuz.

2. Batasunaren lana ondorengo alorretara bideratuko da:

— eraldaketa industrialen egokitzapena erraztea, bereziki heziketa eta birmoldaketa profesionalaren bidez,

— hasierako Lanbide Heziketa eta Heziketa Iraunkorra hobetzea, lan merkaturako sarrera profesionala errazteko,

— informazio profesionala eskuratzeko modua erraztu, eta hezitzaile zein prestakuntzan dauden pertsonen mugikortasuna erraztu, bereziki gazteen kasuan,

- irakaskuntza zentro eta enpresen arteko elkarlana piztu prestakuntzako gaien inguruan,

- Batasuneko kide diren estatuen artean prestakuntza sistemen inguruko informazio eta esperientzien trukaketa areagotu.

3. Batasunak eta bere kide guztiak elkarlana sustatuko dute gainerako herrialdeekin, eta baita Lanbide Heziketaren alorrean eskumena duten nazioarteko erakundeekin ere.



idoia fernandez

ELKARRIZKETA

EHUko irakaslea.

“Irakasle ona ez da jaiotzen, irakasle ona egin egiten da. Eta uste dut horretarako prestakuntza ezinbesteko lanabesa dela”

idoia fernandez

E

“ Hezkuntza ez da ekintza indibidual bat. Baizik eta ekintza kolektibo bat. Hala behar luke izan behintzat. Irakasleaz baino, irakasleez hitz egin behar dugu. Irakasleak irakaskuntzan elkarrekin aritzen diren pertsonak dira, eta elkarrekintzan daude beste pertsona batzuekin. Ikasleekin, hain zuzen.

”

Idoia Fernandez (Portugalete, 1961) Pedagogian doktorea da. Gaur egun EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eskolak emateaz gain, unibertsitateko Hezkuntza Aholkularitza Zerbitzua zuzentzen du. Besteak beste, unibertsitatearen gainean, Bolonia prozesuari buruz eta irakasleen prestakuntzari buruz hitz egin du gurekin.



Une honetan, zertan ari da zehazki Idoia Fernandez?

Euskal Herriko Unibertsitatean, Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzarako errektoreordetzaren barruan dagoen HELAZ Hezkuntza Aholkularitza Zerbitzuan. Gure egitekoa unibertsitateko irakasleen prestakuntza eta aholkularitza lana egitea da. Jesus Mari Goñi buruzenean sartu nintzen, prestakuntzako diseinua eta proposamenak taxutzeko. Ondoren, errektoretza talde berriarekin zuzendaritzan sartu naiz. Azken batean, unibertsitateko irakasleentzako zerbitzu bat da, ez oso handia. Zuzendariak eta campus bakoitzeko koordinatzaile batek eta bi irakaslek osatzen dugu zerbitzua. Guztiak gara irakasleak, eta unibertsitateak gure irakaskuntza lanaren zati bat arintzen digu, HELAZ zerbitzuari eskaini ahal izateko. Ez gara teknikari bihurtu, beraz. Ez gara bakarrik horretan ari, bi alorrek uztartzen ditugu. Hots, irakasle izaten jarraitzen dugu.

Zerbitzu hori zuzenean al dago Bolonia prozesuari eta horren ezarpenari lotuta? Edo modu paraleloan jarduten duzue?

Ea nola azaltzen dudana. Argi dago unibertsitatean, gaur egun, irakasleentzako hezkuntza berrikuntza eta prestakuntza egiten ari bagara, hein handi batean Boloniak sortutako egoeraren ondorio dela hori.

Duela sei bat urte, Bolonia prozesuaren ezarpenak ekarritako baldintzak betearazi nahian, behar bat ikusi zen, eta hortik jaio zen egun daukagun egoera. Dena den, nire ikuspegitik, guk egiten dugun lana ez da, soilik, egoera

berri horri erantzuko egiten. Uste dut unibertsitateak behar duela irakaskuntzaren planteamendu berri bat egin. Agian, irakaskuntzak, behingoz, galderak egin beharko lizkioke bere buruari. Eta Boloniaren uholde honek urak mugitu egingo ditu. Nire ikuspegitik, Boloniak baldintza berriak ezartzen dizkigu gogoeta hori egin ahal izateko. Baldintza batzuk ezarri eta irizpide global batzuk emango dizkigu. Baina nik, Hezkuntza Aholkularitza Zerbitzuko zuzendari gisa, uste dut Boloniarena baliatu behar dugun egoera bat dela. Jankinda, betiere, badaudela sistema berri honetako elementu batzuk gustuko ez ditugunak. Baina baita aurreko sisteman ere!

Eta uste al duzu ari garela etekina ateratzen hausnarketa egiteko aukera horri?

(Hasperen egin ostean). Oso zaila da. Gure unibertsitatea, lehenik eta behin, oso unibertso konplexua da. Ezagutzaren leku gorena. Unibertsitatean, irakasteaz gain estatus handia duen beste gauza bat ere egiten da: ikertu. Beraz, oso mundu konplexua da, eta hauxe hartu behar dugu aintzat: egoera honetan irakaskuntzak desabantailan jokatzen duela partida. Hemen, unibertsitateko irakasleontzat ikertzea askoz ere garrantzitsuagoa da, hala erakutsi digutelako. Ikertzeagatik ematen digutelako diru gehiago, hori eskatzen digutelako etengabe... Nola-bait sistemak ikerlari onak izatera bultzatzen gaitu, premisa batekin: ikerlari ona den oro, berez, irakasle ona da.

Orain premisa hori zalantzan dago, ez da horrela, berez. Oso ikerlari ona izan zaitezke, baina oso irakasle txarra. Edo erdipurdiko ikerlaria eta irakasle ona, edo ikerlari eskasa eta oso irakasle ona... Hau da, hainbat konbinazio egon daitezke.

Eta berriro galderara itzulita, lortu dugu zenbaiten artean gogoeta honen inguruko sentikortasuna zabaltzea. Eta, era berean, irakasle ona izatea ere meritutzat hartzea lortu dugu. Akaso hori oso gutxi dela esango didazu. Bai,

arrazoi duzu, oso gutxi da. Baina, abiapuntua kontuan hartuta, bada zerbait. Aldaketak ez dira goizetik gauera etorriko. Egungo eredia urte luzeetan egindako lanaren emaitza da, eta hori ez da bat-batean aldatzen. Bide bat egiten hasi gara. Horrek benetako zein eragin duen? Txikia, zalantzarik gabe. Beti egongo dira irakasle batzuk horrelako gaiei adi egongo direnak, eta beste batzuk horren inguruko galderak egiteko beharrik ere sentituko ez dutenak. Baina, beno, lorpen bat da.

Hori irakasle ona izatea meritutzat hartuta. Baina irakasle ona sortzea? Hori posible al da?

Nik uste dut baietz. Horretan sinesten dut bete-betean. Irakasle ona ez da jaiotzen, irakasle ona egin egiten da. Eta uste dut horretarako prestakuntza ezinbesteko lanabesa dela. Agian eztabaidatu dezakegu zer-nolako prestakuntza behar den. Edo zer ulertzen dugun prestakuntza diogunean, eta nola burutu edo bultzatu daitekeen irakasle onak sortu ahal izateko. Baina uste dut posible dela, eta ikasi egiten dela irakasle ona izaten.

Baina, beharbada, hautsi egin behar da, behingoz, irakaskuntza ezagutzaren transmisio soila dela dioen ideia hori. Transmittitzearekin, soilik, ikasleek ikasi egiten dutelako ustea. Ikasi irakasleek egiten dute horrelakoetan. Askok. Baina horrek ez du esan nahi aurrean dituztenek automatikoki ikasten dutela.

Hausnarketa horren ildotik, zein izan lirarteke, zure ustez, irakasle ona izateko gako nagusiak?

Nik, lehenengo eta behin, esango nuke irakaskuntza ez dela ekintza indibidual bat, baizik eta ekintza kolektibo bat. Hala behar luke izan behintzat. Irakasleaz baino, irakasleez hitz egin behar dugu. Irakasleak irakaskuntzan elkarrekin aritzen diren pertsonak dira, eta elkarrekin izan daude beste pertsona batzuekin. Ikasleekin, hain zuzen. Bestalde, nik gelatik haratago dagoen irakaskuntza irudikatu nahi dut. Pentsa-



tzen dugu irakaslea gela barruan ikasleekin diharduen pertsona dela. Eta hori sano gainbegiratu beharko genukeela uste dut. Irakaskuntza gelatik kanpo eta etengabe gertatzen da, eta are gehiago bizi garen mundu honetan. Beraz, nolabait esateko, ez nuke mugatu nahi irakaskuntza ikasgelara, ez eta ekintza indibidualera ere.

Honakoa galdetu behar dio irakasleak bere buruari: zer egingo dut aurrean ditudan hauek benetan ikas dezaten? Izan daitezten, benetan, pedagogo onak, maisu-maistra onak, ingeniari onak, sendagile onak...? Uste dut, era berean, irakasle ona dela, irakaskuntzaz kezkatzeaz gain, ikaskuntzaz ere kezkatzen dena. Hau da, irakasleak ez gaude hemen ezagutza transmititzeko, baizik eta besteek ikas dezaten. Eta, beharbada, galdera beste modu batez egitea izango litzateke gakoa. "Zer egingo dut gaur?" galdetu beharrean, "Zer egingo dut gaur ikasleek, modu esanguratsuan, gehiago ikas dezaten?"



E

“Orain guztiz aurkakoa da: “egin ezazu zuk nahi duzuna, baina ziurtatu beharko duzu lau urte barru zure ikasleek gaitasun hauek izango dituztela”. Eta hori oso aldaketa handia da. Zergatik? Unibertsitateek eta fakultateek ez dutelako curriculuma eratzeko horrenbesteko askatasun izateko kulturarik. Badaude baldintza batzuk, noski, baina nahiko askea da.

”

itauntzea.

Izan dadila, benetan, ikasleak mugiarazten dituen ikaskuntza. Irakasle onak galdera horiek eduki behar ditu buruan.

Ibili zinen Freire eta eskola dialogikoak lantzen ere. Zer nolako bizipenak izan dituzu alde horretatik?

Hori 2000. urte inguruko proiektu bat izan zen. Ikastolen Elkartetik irakasleen prestakuntza beharren diagnostikoa egiteko eskatu ziguten. Guk hausnarketa prozesu bat egitea proposatu genien. Irakasle individual gisa zer behar zuten galdetu beharrean, gogoeta kolektiboagoa egitea proposatu genien. Izan ere, prestakuntza beharren inguruan badago tranpa moduko bat. Jendea zer behar duen galdetzen dionean, jendeak automatikoki ikastaro bat behar duela erantzuten du. Baina, inplizituki jendeak bere beharrak adierazten dituenean, badago eredu bat, badago helmuga bat, baina ezkutuan geratzen da. Eredu hori definitzea nahi genuen. Irakasle bakoitzak gauza bat eska dezake, baina ez dakigu helmuga zein den. Ez dakigu helmuga partekatzen dugun ala ez. Helmuga, kasu honetan, proiektu pedagogiko gisa uler-tuta.

Horixe izan zen gugana jo zuten Ikastoletako arduradunei planteatu geniena. Interesgarria iruditu zitzaion, prozesua aurkeztu genien eta bost ikastolak eman zuten izena. Eta uste dut oso prozesu parte hartzailea egin genuela. Ikastoletan eztabaidarako taldeak osatu ziren, eta talde horietan hainbat eragilek hartu zuten parte: ikasleek, gura-soek, langileek... Hainbat gai jarri genizkien mahai gainean, eta beraiek,

apurka-apurka, elkarrizketa eta eztabaida haietan ikastolako proiektuarekin zer egin nahi zuten definitu behar zuten. Zer nahi zuten eta zer ez. Erantzun horiek bildu ondoren, hau da, helburua zehaztu ondoren, zer behar zuden definitu genuen: eragile batek behar zuten hau, besteak beste hau... Horiek guztiak bilduta diagnosi bat egin eta txosten bat idatzi zen.

Baina prozesuaren amaieran ikas-tetxe horiek zerbait gehiago behar zuten. Jarraipen bat nahi zuten, eta horrela sortu zen komunitate dialogikoen proiektua. Proiektu horretan ardatz nagusietako bat pedagogia kritikoa eta, besteak beste, Freireren ideiak izan ziren. Batez ere, Freirek dialogoa edo elkarrizketa ekintza komunikatibo gisa hartzen duelako. Ekintza horretan elkarrekin eraikitzen dugu ezagutza. Nolabait esateko, ezagutza ez dago leku batean kontzentratuta; ez dauka norbaitek, eta beste bati kontatzen dio. Elkarrekintza horretan etengabe eraikitzen ari garen zerbait da ezagutza. Gure helburua giro hori eta kultura hori ikastola horietan zabaltzea zen. Gura-soekin, irakasleekin, ikasleekin...

HELAZ zerbitzutik ba al duzue harremana irakasle eskolekin?

Bai, EHUko zentro guztientzako zerbitzua gara eta hor irakasle eskolak ere sartzen dira. Orain arte, baldintza berriak betetzen dituzten graduen diseinuan aritu gara. Eta, horretarako, hainbat prestakuntza ekintza izan ditugu. Batzuk zentroentzat, eta, beste batzuk, irakasleentzat. Une honetan diseinu horiek eginda daude eta Madrileran bidalita. Izan ere, horiek guztiak Madrilen onetsi behar dituzte.

Orain, 2010. eko irailetik aurrera gradu berriak abian jartzen hasiko garenez, hainbat prozesu eta programa lantzen ari gara. Batetik, ERAGIN programarekin aldaketa metodologikorako prestakuntza egingo dugu. Horretarako, kanpoko unibertsitateetako adituen parte hartze zuzena dugu; besteak beste, Mexikoko Monterreyko Teknologikoarena, Kanadako MacMasterre-

ko Unibertsitatearena eta Castelldefels-eko Escola Politécnicaarena. Bestetik, zentroentzako beste programa bat ere zabaltzekotan gaude; gradu berri horiek bultzatzeko irakasle taldeak sortu behar dira, koordinazio ohiturak sortu behar dira, eta, oro har, gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza gauzatu behar dugu... Azken batean, lan egiteko modua aldatu behar da, eta horretan lagunduko diegu. Bestalde, badaude ikastaro klasikoagoak, nolabait esateko. Azkenik, berrikuntza proiektuak egiteko urteroko deialdia ere badugu, zeinean irakasleek proiektu zehatzak aurkezten dituzten. Demagun irakasle talde batek metodologia kooperatiboa esperimentatu nahi duela ingeniari-tza teknikoko talderen batean. Bada, deialdi horretako onuradun izanez gero, bi urteko berrikuntza abian jartzeko laguntza izango du. Berrikuntza horiek, baina, behetik etortzen dira, hau da, irakasleen ekimenetik sortzen dira.

Une honetan gure helburu nagusia fakultate bakoitzak ardurak hartzea da: gradu berri horiek nola antolatuko dituzten pentsatzea, giro egokio nola sortuko duten galdetzea... Maila horretan harremana dugu zentro guztiekin, baita irakasle eskolekin ere. Zer gertatzen da, baina? Gu aholkularitza zerbitzua baino ez garela. Ez dugu ezartzen politika orokor bat. Hau da, fakultateek euren ere izan behar dute inziatiba.

Eta noraino iristen da fakultate bakoitzaren autonomia?

Batetik, legeak ezartzen dituen baldintzak daude; esaten digutenak graduek izan behar dutela halakoak eta ez bestelakoak, esaterako. Azken batean, zehaztuta dauden baldintza batzuk daude. Kalitate sistemaren filosofiaren barruan dauden baldintzak dira, eta horiek estatuko fakultate guztietarako dira berdinak. Baina gero, egia esanda, une honetan autonomia handia dute. Adibidez, curriculumen diseinuan. Fakultateek bermatu behar dute ikasleek ikasketak amaitzean izango dituztela gaitasun jakin batzuk; baina, gero, barruan zuk zer irakasgai ipintzen duzun zure aukera da. Aurreko ereduarekin alderatzen badugu autonomia handia dago; aurrekoan guztia zegoen alde aurretik ezarrita. Esan nahi dut curriculumak leku guztietan oso antzekoak zirela, legez oso lotuta zetozelako. Orain, guztiz aurkakoa da: "egin ezazu zuk nahi duzuna, baina ziurtatu beharko duzu lau urte barru zure ikasleek gaitasun horiek izango dituztela". Eta hori oso aldaketa handia da. Zergatik? Unibertsitateek eta fakultateek ez dutelako curriculuma eratzeko horrenbesteko askatasun izateko kulturarik. Badaude baldintza batzuk, noski, baina nahiko askea da.

Horretarako, lan egiteko modua

aldatzea garrantzitsua da. Sailetan lan egin beharrean, zentro moduan lan egitea ezta?

Noski, eta hori da aldaketa inportantenetako bat. Orain arte unibertsitatearen funtzionamendua sailetan oinarrituta egon da; eta sail horiek, azken batean, diziplinak dira. Horien arabera taxutu dira curriculum guztiak, hau da, curriculumak diziplinen eta ezagutzen arabera oinarrituta zeuden. Baina zer esaten da orain? Jakinda ezagutza oso azkar aldatzen ari dela, profesionalak edukiak ikasten orduak eta orduak ematea agian denbora galtzea dela. Hortik dator apur bat gaitasunen kontzeptua. Ikasleak ezagutza besteekin eraikitzeke eskarmentua har dezala, horixe da helburua. Ezagutza etengabe berritzea eta eraikitzea.

Ikuspegi historikoak asko laguntzen dit niri egoera ulertzen. Inprenta asmatu baino lehen liburuak banakabanaka kopiatzen zituzten monasterioetan, neke handiz. Ezagutzaren produktio oso motela zen. Gutxi eta mantso ekoizten zen. Gainera, ezagutza hori jaso edo irakur zezakeen jendea oso gutxi zen. Ondoren, inprentaren asmatuntzari esker, ezagutza hori leku batean ipini eta oso azkar biderkatzeke aukera zegoen. Demagun urtean liburu bat produzitu beharrean, egunean lau produzitzeko aukera ekarri zuela. Horrek, ondoren, alfabetizazioa ekarriko zuen. Baina, de facto, inprentak biderkatu egin zuen ezagutza zabaltzeko ahalmena. Eta zabaldu ahala erabilera ere handitu egiten da.

Eta hori oso garrantzitsua da eskola sistemak ulertzeko. Azken batean, XIX. mendean, Frantziako Iraultzaren ostean, ilustratu talde batek ezagutza guztia liburu batean biltzea erabaki zuen. Horrela sortu zen entziklopedia. Ezagutza guztia leku batean bildu nahi izan zuten. Eta eskolak ere garai horretakoak dira, orduan sortu ziren. Bildutako ezagutza hori guztia jendeari transmititzeko.

Ezagutza guztia liburu bakar batean zegoen, jakintsuek idatzitako liburu batean. Gainerakoek irakurri egiten



E

“ Gaur egun, askoz ere indar handiagoa du Illich bezalako autore batek (deseskolarizazioak), beste edozeinek baino. Izan ere, hezkuntza ez dago eskolan, kanpoan dago. Beraz, ez badugu lortzen eskolak eta irakasleak gogoeta hori egin eta benetan zerbait malguagoa, zabalagoa, intersubjektiboagoa eta aktiboagoa erdieste, bizikleta zahar batekin Tourrean parte hartzen arituko gara ”

zuten. Hierarkia bat zegoen: zientzialariek asko zekiten, maisu-maistrek hura jasotzen zuten, eta gainerakoei errepikatzen zieten.

Une honetan, Internetek, inprentak sortutako mundua, hau da, ezagutza ekoitzi, banatu eta erabiltzeko mekanismoak, erabat itxuraldatu ditu. Sareak erabateko horizontaltasuna eta sinkronia lortu du ezagutza sortzeko, erabiltzeko eta zabaltzeko. Memento honetan ezin dugu pentsatu ere egin ezagutza guztia entziklopedia batean biltzea. Baina sortu dugu beste entziklopedia bat: Wikipedia. Entziklopedia horretan pertsona askok hartzen dute parte, dagoeneko ez dira bilustratu soilik. Eta gauza bera gertatzen da maila guztietan. Une honetan ezagutza horizontalki zabaltzen da, etengabe. Eta beste ezaugarri garrantzitsu bat; orain, ezinezkoa da lagun bakar batek bere buruan ezagutza guztia edukitzea. Hainbat ezagutzaren konbinazio propioa izango du norberak.

Horrek guztiak galdera garrantzitsuak eginarazi behar dizkio eskolari. Geurea aurreko paradigma batean sortutako sistema bat da. Ezagutza, aipatutako modukoa zenekoa eta irakasleen lana transmititzea zenekoa. Orain, baina, zein da gure lana? Eta galdera bera egin behar zaio baita unibertsitateari ere. Irakaskuntza diziplinarra garrantzitsua dela ez nuke zalantzan jarriko.

Baina nahikoa al da hori, kontuan hartuta ikerlari guztiek euren emaitzak sarean ipintzen dituztela eta horien gainean doazela sortzen ezagutza...?

Uste dut oraindik ez dakigula honek guztiak nolako eragina duen gure antolamendu sozialean. Ez eta gure hezkuntzaren antolamenduan ere. Ordenagailuak ipiniko ditugu nahi baduzu leku guztietan, baina ez dugu oraindik beharrezko gogoeta egin. Ez dakigu nolako etena sortuko duen horrek alfabetatze prozesuetan, hezkuntzaren antolamenduan, pertsonen bizi-moduan... Inprentak salto bat ekarri bazuen, honek beste bat ekarriko du, eta gu barruan gaude. Eta oso galdera potoloei erantzun beharko diegu.

Irakasle eta hezitzaileen egitekoa, beraz, oso garrantzitsua da.

Noski! Eta eskolarena ere bai. Gaur egun, askoz ere indar handiagoa du Illich bezalako autore batek (deseskolarizazioak edo haurra eskolara ez eramateak), beste edozeinek baino. Izan ere, hezkuntza ez dago eskolan, kanpoan dago. Beraz, ez badugu lortzen eskolak eta irakasleok gogoeta hori egin eta benetan zerbait malguagoa, zabalagoa, intersubjektiboagoa eta aktiboagoa erdieste, bizikleta zahar batekin Tourrean parte hartzen ari gara. Nik horrela ikusten dut, hor dago gaikoa. Horri buruzko gogoeta irakurri



diot orain dela gutxi Manuel Castellsi *La Galaxia Internet* liburuan.

Eta unibertitatean ere gauza bera gertatzen da. Arazo bera daukagu. Institutuzio hauek sortu ziren ezagutza sortzeko, banatzeko eta erabiltzeko kode batekin, baina une honetan kode hori krisian dago. Ez da egokitzen. Ezin dugu jarraitu Internet erabiltzen, baina beste sistema edo pentsamendu zahar horrekin.

Eta galaxia erraldoi horren barruan, Euskal Herriak herri gisa bizitzeko nortasuna beharko du. Bestela galdu egingo gara galaxia horretan. Gako batzuk egongo dira guk geure heziketa garatu ahal izateko. Zein izan daitezkeen esatera ausartuko al zinateke?

Euskal hezitzaile batek nik uste dut gako asko eduki behar dituela. Niri asko gustatzen zait, esaterako, auzolanaren ideia. Pentsatzen jarrita ikusten dut aipatutako balio horiek ez direla hain arrotzak guretzat; elkarrekin gauzak egitekoak gara, modu horizontalean... Antropologikoki daude gure portaera kulturetan txertatuta. Uste dut horiek guztiak horrela lantzea badela gure kultur transmisioaren ezaugarri bat. Gure kulturaren, ideia horizontal eta kooperatibo hori ez da arrotza. Guztiz kontrarioa, oso gurea da, eta agian gako horiek erabili egin behar dira.

Identitateari dagokionez, uste dut lortu behar dugula ezagutzak gure hizkuntzan sortu eta garatzea, besteak beste. Ez dago errezeta magikorik, baina pedagogia kritikoa eta Freirek beti esaten dute gako gogoeta-ekintza-gogoeta-ekintza prozesu etengabea dagoela. Nik ezin diot Euskal Herriko txoko batean dagoen hezitzaile bati esan nola gauzatu behar duen bere hezkuntza praktika. Baina esango nioke egiten duenari buruzko gogoeta sistematikoa eta zorrotza egiteko. Galderak egiteko hezkuntzaren helburu nagusiei buruz. Egiten duguna zertarako egiten dugun galdetzeko, behin eta berriz. Zein da zure helmuga? Nora iritsi nahi duzu? Merkatura ailegatu eta profesional



onak sortzea da zure helburua? Edo merkaturak lana izango duten profesionalak sortzeaz gain, mundu zuzenago baten alde ariko diren pertsonak nahi dituzu? Oso galdera ezberdinak dira. Ezin dugu esan ez dugula merkaturako hezi nahi, lana denok behar dugu. Baina beste gauza bat da logika bakarra merkatuarena izatea, eta merkatu jakin batena izatea. Uste dut logikak gizartearena izan behar duela. Gizarte gero eta horizontalagoa, gero eta bidezkoagoa, gero eta euskaldunagoa... Zertarako eta zergatik galdetzen duzunean, balio horiekin bat egin behar duzu. Hau da, bat egin behar duzu, Freirek esango lukeen bezala, munduaren irakurketa batekin.

Bestalde, eskolari egiten zaion kritika nagusietako bat da ez duela norbanakoaren ahalmenak garatzen laguntzen. Merkaturak, gizartea... Baina ahalmen pertsonalak non geratzen dira?

Bai, akaso egia izango da. Baina pentsa, aurten Europan sormenaren urtea da. Erresuma Batura, Finlandiara edota iparraldeko beste zenbait herrialdetara joaten bagara, eskola sistemaren baitan kritika zorrotza egiten ari dira norberaren ahalmenen inguruan. Zehatzago esateko, norbanakoak ezusteko egoeren aurrean erantzuteko duen ahalmena garatzen ez delako.

Ezagutza mugatua den zerbait baltz bezala ikusten badut, nire ikasleek

ezagutza hori urtebeteren buruan berdin-berdin izan dezaten besterik ez dut lortuko. Zakua bete. Ikasleak alde aurretik formulatuta dauden galderei erantzuteko heziko ditut. Baina, jakina, mundu honetan ezagutza etengabe eta milioika pertsonaren ekarpenarekin ari da eraikitzen eta itxuraldatzen. Berez, ezin dugu hezkuntza planteatu alde aurretik dakizkigun galderei erantzuten jakiteko. Baizik eta ez dakizkigun galderak egiten jakiteko eta horiei ere erantzuten jakiteko. Horretarako, sormena lantzen ez bada, jai daukagu!

Baina irakasleak, batzuetan, tematu egiten gara, eta ni neu lehenengoa. Gure ikasleek guk dagoeneko badakiguna erantzuten jakin dezaten nahi dugu. Eta kosta egiten zaigu beraien esku uztea eta pentsatzea ikasleek galdera esanguratsuak egiten ikasi behar dutela, eta erantzun ahalik eta onenak bilatu behar dituztela, lehen aipatu dugun mundu zuzenagoa eraikitzeko. Sormena funtsezkoa da horretarako.

Erresuma Batuan, esaterako, laboristek asko bultzatu dute hori. Hainbat eskola ari dira proiektu hori jorratzen. Metodologia berezia dute; arazoetan edo proiektuetan oinarritutakoa. Sare lan handia egiten da; hau da, ez da eskola bere baitan bakarrik aritzen. Lan egiten dute enpresekin, elkarteekin, artistekin... Hain zuzen ere, mahai gainean *collage* moduko bat ipini eta ikasleak zer sortzeko gai diren ikusteko egiten dute. Baina sormena eta kontrola ez

idoia fernandez



E

“Auzolana ez da hain arrotza guretzat; elkarrekin gauzak egitekoak gara, modu horizontalean... Antropologikoki daude gure portaera kulturaletan txertatuta. Uste dut hori lantzea badela gure kultur transmisioaren ezaugarri bat. Gure kultura, ideia horizontal eta kooperatibo hori ez da arrotza. Guztiz kontrakoa, oso gurea da, eta agian halako gakoak erabili egin behar dira.

”

dira oso ongi ezkontzen. Batzuetan badaude gogo kontrolatzaileagoak, aldez aurretik definitutako emaitza batzuk bilatzen dituztenak. Eta agian gehiegi esatea da, baina, beharbada, eskolan hori gertatzen ari zaigu. Beldurra ematen digu besteari atea zabaltzea. Emaitzei begiratzen zaielako, azken batean.

Lehen ere norberak bazuen gaitasun propioak garatzeko beharra. Zergatik sortzen da orain gizartetik eskolara datorren eskari hori? Merkatuak behar duelako?

Zalantzarik gabe merkatuak behar du. Uste dut oso harreman estua dagoela, eta paradoxa dirudien arren, guretzat ona da. Une honetan gauzak errepikatzearen mekanika nahi baduzu, askoz hobeto eta merkeago egiten dute txinatarrek europarrek baino. Zer geratzen zaio Europari? Sormenaren esperantza baino ez. Eta ekonomian ere hasi dira bide horretan. Arrazoi ekonomikoak daude horretarako, ados. Baina baita arrazoi antropologikoak, pedagogikoak... Ongi etorriak izan daitezela. Guk saiatu egin behar dugu hori baliatzen. Eta merkatua etortzen denean bere perbertsioekin saiatuko naiz aurre egiten, nik badakidalako zein mundu nahi dudana. Batzuetan, errefusatu egiten dugu zerbait, arrazoi ekonomikoak direla medio etortzen delako.

Arrazoi ekonomikoena ez al da Boloniari egiten zaion kritika gogorrena?

Bai, irakurketa hori badago. Niri iruditzen zait irakurketa horrek determinismora eramaten gaituela. “Txarra da eta nik ez dut egingo”. Eta aurrekoa ona al zen? Ni agian oso kritikoa izango naiz daukagun unibertsitatearen inguruan, baina datorrenak ezin du okerrago izan. Edo, behintzat, horretan saiatuko naiz. Izan dezaket mesfidantza eta arretaz jokatu dut. Hots, hau ez da intentzio gizatiar eta kritikoen ondorioz datorren zerbait. Atzetik badaude arrazoi materialagoak, eta merkantilagoak esaterako. Baina aurrekoa ere horrelakoa zen. Boloniari kritika hori egiten zaionean, ematen du aurrekoa ez zela horrelakoa. Santutu egiten dugu.

Oraingoak, bederen, aukera ematen du aurrekoa hobetzeko. Berez, zaila da. Baina nik uste dut hobetzen dela, eta geure esku egon daitekeela galdetzea nora eraman nahi dugun. Nik nahiago dut unibertsitatean ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoa bultzatu, indibiduala eta diziplinetan oinarritutakoa baino. Ez da izango utopia sozial bat, baina bada aldaketa bat.

“Pedagogia ikasketak egin ondoren, Nikaraguara joan nintzen. Han urte eta erdi pasatuen lanean, gerrak desplazatutako komunitateetan.

Gizarte lana edo egiten genuen, gehienbat emakumeekin. Hezkuntza lana zen, baina ez eskolakoa, gizartekoa baizik”.



Ikastolen Elkartea

ikastolak!

Habanako Miguel Basilio Diaz-era bisita Komunikazio nahaste larriak dituzten haurrentzako ikastetxea



Teresa SUSINOS
KANTABRIAKO UNIBERTSITATEA

Miguel Basilio Diaz ikastetxe berezia 80ko hamarkadan sortu zen, komunikazio nahaste larriak dituzten ikasleentzat. Kubako hezkuntza sisteman, ikastetxe bereziek osatutako sare zabala dute; orotara, 437 eskola berezi inguru dituzte. Eta horietan ikasten dute herrialde osoko 40.000 neska-mutilek. Ikastetxe sare horren garrantziaz jabetzeko, ezinbestekoa da 40.000 haur horiek, gutxi gorabehera, eskolatuta dauden haur guztien % 5a direla jakitea.

Alde horretatik, Kubako hezkuntza eredu sobietar tradizioaren oinardekotzat har dezakegu. Hain zuzen ere, ikaskuntza prozesuan zailtasunak dituzten neska eta mutikoak eskolatzeko apustua egin duelako, eta hezkuntza sistema berezia, zabala, konplexua eta

baliabidez ongi hornitutakoa garatu duelako. Eskolatzeko goiztiarra izaten da (3-4 urte), besteak beste, sistemak helburu "parekatzailea" hobeto bete ahal izateko. Hots, haurren antzematen diren zailtasunak jatorrizko euren eskolara bidali aurretik zuzentzen eta orekatzen saiatzeko.

Kubako Diagnosi eta Orientazio Zentroak hala erabakita, garapenaren alorretako batean zailtasunak dituen haur bat eskolara ailegatzen den unean, hezkuntza sistema publikoko ikastetxe berezi batera eramaten dute; betiere, diagnosi sistema konplexu bat egin ostean. Zehatzago esateko, diagnosi azterketa egin ondoren, hauteman diren behar horietara hobekien egokitzen den ikastetxera eramango dute haurra.

Ikastetxe berezi horretan, bi urtetik boistera bitarteko egonaldia egingo du haurrak. Izan ere, ikastetxe berezi ho-

riekaldi baterako irtenbide gisa hartzen dira. (Buruko atzerapena duten haurrentzako zentroen kasuan izan ezik; behin betiko ezaugarriak dituztenez, curriculum propioa izaten dute horiek, eta ez dute derrigorrezko curriculumarekin bat etorri behar). Denbora jakin hori pasatzen denean, ikaslea jatorrizko ikastetxean integratzen da, eta ordu-ra arte eskolatuta egon den ikastetxe berezi horretako profesionalen jarraipena izaten du. Horixe da, Kuban, *integratio* hitzak duen adiera. Haurrek euren jatorrizko ikastetxea sekula ez uzteko fenomenoari "inklusio" deitzen diote. Eta prozesu hori ia ez da existitu ere egiten, edo behintzat, ez da garrantzitsua. Une honetan, hezkuntza politikaren ikuspegitik, ez da beharrezkoa, ez eta lehenetsizkoa ere.

Hezkuntza politika horren oinarrian, eztabaida sortzen duten hainbat ideia daude, bereziki, heziketak anizta-



sunaren inguruan duen arretari buruzkoak. Besteak beste: hezkuntza ez inklusiboa, ikasle taldeen homogeneizazioa, profesionalak oso espezializatuak izateko beharra eta profesional horien betebeharren banaketa zorrotza. Jakina denez, ideia horietako askori behin eta berriz erantzun diete eskola eredu inklusiboaren aldekoek. Bai eta haurrek eskola komun batean parte hartzeko duten eskubidea defendatzen dutenek ere.

Bestalde, bisitan lagun izan genituen gidariek onartzen dutenez, Kubako hezkuntza sistemaren bereizgarrietako bat, zeharkako koordinazio bizia da. Hots, hainbat sektorek elkar hartuta egiten dute lan: hezkuntza alorrekoak, osasunari dagokionak, lan sektoreak, elkarteek... Guztiek dute zeresana ikastetxe horietako ikasleei eragiten dieten erabakietan.

Kuban komunikazio nahaste larriak dituzten haurrentzako hamabi ikastetxe daude, eta, esan bezala, Miguel Diaz Basilio da ikastetxe horietako bat. Horiez gain, badira bereziki ikasle gorrentzako beste hamasei ikastetxe. Miguel Diaz Basilio ikastetxera inguruko hamar herritako 100 mutiko eta 40 neska joaten dira, guztiak 4 urtetik 11ra bitartekoak. Afasia, errinolalia, dislalia, disartria eta autismoa diagnostikatu dizkiete guztiei. Beste edozein ikastetxetan bezala, haurrak talde txikiko geletan eta adinaren arabera daude banatuta.

Kanpotik ailegatutako edonorentzat, benetan harrigarria da ikastetxe horretan zenbat irakasle eta espezialista dagoen ikustea. Ikastetxeko zuzendariak azaldu zigunez, ikastetxeko lan taldea 33 profesionalak osatzen dute, gelako irakasleak, laguntzaileak, logopedak eta bestelako espezialistak kon-tuan hartuta.

Sistema horrek baditu beste bertute batzuk ere, bereziki, antolamenduari



eta baliabide didaktikoei dagokienez. Horiek guztiak ongi ikusten dira inongo arazorik gabe atera ahal izan genituen –eta artikulu honekin batera doazen– argazkietan. Irudi horietan, baina, ezin da inondik inora ere igarri zuzendariaren aldetik nahiz ikastetxeko profesional guztien aldetik jaso genituen adeitasuna, maitasuna eta prestutasuna.

Ondoren, ikastetxeko hainbat txokotan barrena eta ikasgelatara egin genuen paseotxoan, gure begirada behatzailea ikasleen harridurazko begiradarekin gurutzatzen zen, eta irakasleak gure galdera guztiei erantzuten saiatzen ziren. Inolako erreparorik gabe erakutsi ziguten ikastetxea, eta etxean bezala sentiarazi gintuzten. Horregatik guztiagatik, nire esker ona azaldu nahi diot Miguel Basilio Diaz ikastetxeari. ●

susinosti@unican.es



BIRBIRA

Zaborra birziklatuz egindako sormen lanak

Gaur egungo gizartearen arazo larrienetakoa bilakatzen ari dira hondakinak. Zein da modurik egokiena hondakin horiek deuseztatzeke? Eztabaida kalean dagoen bitartean, proposamen txiki bat dakarkigu lerro hauetara. Ez dugu hondakinaren eta zaborraren arazoa errotik konponduko, baina zaborra birziklatzeko modu ugari daudela erakutsi digute Birbira taldeko bi neskek. Eta gainera, sormena landu, irudimenari hegan egiten utzi eta ondo pasatzeko aukera paregabea ere eskaintzen dute. Ezagutu nahi al duzu beraien proiektua? Orduan, segi irakurtzen!

Amaia Zinkunegi (Arte Ederretan lizentziatua) eta Ines Gereka (Biologian lizentziatua) Bibirako kideek zentzu di-

daktikoa eman nahi diote erakusketari, eta beraz, gidatua izatea proposatzen dute. Ekimenak, helburu hauek ditu:

- Birziklatzea modu praktiko batean landuz, inguruneaz gehiago jabetzea.

- Gaur egun bizi dugun “erosi eta bota” kultura kontsumitzaile horren inguruan hausnarketa egitea.

- Botatzen ditugun objektuei erabile-
ra berri bat emanez, haien balioz ohartzea.

- Birziklatzean sortzen diren arazo tekniko zein estetikoari aurre eginez, plastikaren “kontzeptuan” sakontzea.


- Zabor artean esperientzia eta jolasen bidez, irudimena lantzea.

ZABORRERIA izeneko erakusketan, inguruan ditugun hainbat zabor beste era batera birziklatuz lortutako “sormen lanak” izango dira protagonista nagusiak.

“Erosi eta bota” sistemarekin funtzionatzen duen egungo gizartearen pila-tzen ditugun zaborrekin zer egin eraba-

kitzea arazo bihurtzen ari da, eta era berean ingurugiro heziketa oinarrizko ikasgaia bilakatu da. Birziklatzea, ingurugiro-heziketa pedagogiaren baliabideetako bat da, eta erakusketa horrekin sormen lan praktiko baten bidez ikasketari hori “sakonagoa” izatea lor daitekeela erakutsi nahi dute ekimenaren sustatzaileek.

Pertsonen garapenean sormena oinarrizko faktoreetako bat da. Beraz, zaborrekin harreman zuzena lortuz eta sortze lanen bidez, zaborrari beste erabilera bat ematea posible dela erakutsi nahi dute. Zabor horien artean, hainbat motatako materiala aurkituko dugu; kolore, ehundura, forma, pisu eta soinu ez-





berdina eskaintzen digutenak. Ugariak dira, era berean, material horiekin erabil daitezkeen teknikak eta prozedurak. Baita, bakoitzaren irudimena, gogoia eta sormen ametsak ere. Erakusketa horretan amets horiek gauzatu aurkeztuko dituzte Birbirakoek.

Kontsumo gizarte horretan, eguneroko zaborrak hiru koloretako edukiontzietara botatzen ditugu: urdina, berdea eta horia, hain zuzen. Badira, era berean, material organikoa botatzeko edukiontzi berezi bat, arropa zaharrak uzteko beste bat, eta edukiontzietan tokirik ez duten traste, altzari edo txatarra botatzeko "garbigune" deiturikoak.

Esan bezala, erakusketak ikuspegi didaktikoa izan dezan saiatzen dira Birbirako kideak eta, beraz, sortzen den "zaborreria" hiru koloretako edukiontzien arabera sailkatzen saiatzen dira.

Hiru edukiontzi

Edukiontzi urdina: etxerako altzari ezberdinak (eserlekuak, kordinak, lanparak...), paperez egindako markoak eta karpetak, buruhandiak eta kartoizko hainbat pertsonaia egongo dira edukiontzi horretan.

Edukiontzi horia: plastikoz eta poliespanez egindako hainbat pertsonaia, eskulturak, jantziak eta lanparak aurkituko ditugu.

Birbiraren edukiontzia: naturatik hartutako adarrekin eta bestelakoekin egindako txorimaloak, aulkiak, lanparak, maskarak eta mota guztietako pertsonaiekin egingo dugu topo.

Baina aurkezten dituzten hainbat lan hiru edukiontzietatik edo garbigune horietatik hartutako materialak nahastuta egindakoak dira. Hau da, sor-

men lan soil batean, kartoia, alambrea, plastikoa, oihala, papera, latak... ikus daitezke.

Naturak berak eskainitako hainbat material ere erabili dituzte: sustriak, harriak, hezurak... Beraz, erakusketako "zaborreria" horretan material, kolore eta forma ezberdinak elkarrekin dantzan aurkezten dituzte.

Nori zuzendua dago erakusketa?

Birbira taldearen erakusketa, gai horren inguruan sentsibilizatuta dagoen edonori zuzenduta dago, baina batez ere, heziketa arloan mugitzen direnei: Haur Hezkuntza, Lehen eta Bigarren Hekuntzako ikasle eta irakasle batetik, eta aisialdi eta ingurugiro arloko begiraleei, bestetik. ●



Material ezberdina birziklatuz askotariko sormen lanak egiten dituzte. Argazkiak: Birbira

Zein da terapeuta okupazional baten egitekoa hezkuntzan? Zertan laguntzen die ikasleei



Galdera horiei erantzun aurretik, orokorrean ezezaguna den terapeuta okupazionalaren lana zer den azaltzen saiatuko gara.

Terapia okupazionalaren helburua gizabanakoak eguneroko zereginetan inorekin ahalik eta mendekotasunik txikiena izatea, garapena hobetzea eta ezintasunari aurrea hartzea da. Horretarako, pertsonaren abileziez eta trebetasunez arduratzen da, eta hainbat jarduera (norberaren zaintza, produktibitatea eta aisialdiko jarduerak) modu terapeutikoan erabiltzen ditu. Hori lortzeko eta bizi kalitatea hobetzeko, zereginak edota inguruneak ere egokitzen eta moldatzen ditu.

Okupazioa

Askotan, "okupazio" izen horrek jendea nahastu egiten du, lanbidearekin edo ogibidearekin lot daitekeen hitza delako; baina ez du horrekin zerikusirik.

Gure kasuan, gizakiok bizitzan askotariko leku eta egoeretan egiten ditugun jarduerak eta rolak dira okupazioak. Beste modu batean esanda, egunerokoan etxean, eskolan, lantokian zein komunitatean egiten ditugun jardue-



Garbiñe GUERRA

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILEKO TERAPEUTA OKUPAZIONALA.
KULUNKA, GARAPEN ARAZODUN HAURREI
LAGUNTZEKO ELKARTEA

rak eta errutinak dira, zentzuz beteta daudenak.

Haur eta gazteen kasuan, eskolara joatea eta bertako ekintzak egitea edo jardueretan parte hartzea da euren okupazio nagusietakoa (idatzi, ordenagailua erabili, komunera bakarrik joan, jolastu...).

Terapia okupazionala hezkuntzan

Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleei laguntzeko zerbitzu bat da. Zerbitzu horrek ikaslearen ikaskuntza



Itziar LANDA

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILEKO TERAPEUTA OKUPAZIONALA.

programako helburuak sustatu eta bermatu behar ditu.

Ikasle batek egin beharreko jardueretan arazoak dituenean, terapeuta okupazionalok haren gaitasunak, zeregina bera eta ingurua ebaluatzen ditugu eta estrategiak diseinatu, ikasle horren trebeziak hobetzeko.

Beraz, hezkuntzan egiten dugun lanaren funtsa ikaslearen curriculumean jasotako helburuak bultzatzea eta laguntzea da. Argi izan behar dugu eskolako zereginik garrantzitsuena ikaskuntza helburuak direla; eta, kasu ho-

netan, terapia okupazionalaren helburua aurrekoak sustatzea eta horien euskarri izatea dela.

Ikaslearen gaixotasun edo arazoek ikaskuntza helburuak arriskuan jartzen ez badituzte, hau da, esate baterako, ikasle batek besoaren mugimendua urritua badu, baina eskolako jarduna zailtasunik gabe egin badezake, ikasle horrek ez luke eskolan zerbitzu hau jaso beharrik izango.

Zertan laguntzen die ikasleei?

Eskoletan egiten den terapia okupazionalak ikaslearen abileziak garatu, hobetu eta eraberritzeko jarduerak erabiltzen ditu.

Terapeuta okupazionalok ikaslearen ikaskuntza jardueraren barneko arloak ebaluatzen eta lantzen ditugu:

- Eskueta trebezia, idazketa, eskolako tresnak erabiltzeko era (arkatza, artaziak...)

- Eguneroko oinarriko jarduerak (komuna erabiltzea, elikatzea, janzea eta erantztea...)

- Ordenagailua erabiltzea

- Gorputz jarrera, mahai-aulkiak

- ...

Aipaturiko arloetan izan daitezkeen eragozpenak hainbat faktoreren eraginpean egon daitezke:

- Ikaslearen gaitasunen eta ezaugarrien mende: ikusmen pertzepzioa, gorputz jarrera (postura), koordinazioa, informazio sentsoriala barneratzeko modua, mugikortasuna, ekintzaren urratsak gogoratu eta sekuentziari jarraitzeko abilezia, beharren adierazpena, galderak egiteko gaitasuna...



- Inguruaren ezaugarrien mende: mahai-aulkien egokitasuna, zaratak, oztopo arkitektonikoak, esparruen antolakuntza, kideekiko distantzia, ekintzak egiteko ordua edo garaia...



- Okupazioaren ezaugarrien mende: konplexutasuna, jarduerak egiteko behar diren materialak (mahai-tresnak, arkatzak, margoak, artaziak, papera, botoiak...) eta jarduerak egiteko modua...



Guzti hori aztertzeko, hainbat tresna erabiltzen ditugu:

- Elkarriketak: tutorearekin, gurasoekin edota ikaslearekin lan egiten duten beste profesional batzuekin.

- Askotariko protokoloak: eguneroko jarduerak, garapen motorra, arlo sentsoriala, ikusmen eta mugimenduaren arteko koordinazioa... balioesteko testak eta egiaztapenak.

Eskoletan ematen den terapia okupazionalak ikaslearen abileziak garatu, hobetu eta eraberritzeko jarduerak erabiltzen ditu.



Terapeuta okupazionalok ikaslearen ikaskuntza jardueraren barneko arloak ebaluatzen eta lantzen ditugu.

- Behaketa zuzena: ikaslea gelan dagoenean edo berarentzako arazo diren jarduerak egiten ari denean.

Kasu eta egoeraren arabera, terapia okupazionala hainbat modutara gauza daiteke: ikaslearekin arreta zuzena izanez, inguruaren aldaketa proposatuz, ekintza eta ariketetan moldaketak eginez, material bereziak ezarri edota eskolako profesionalak trebatuz (tutorea, hezkuntza laguntzako espezialista, pedagogia terapeutikoko irakaslea...). Betiere, ikaslearekin lan egiten duten profesionalarekin koordinatuta eta, askotan, haiekin elkarlanean (fisioterapeutak, logopedak...).

Laburbilduz, ikaslearen parte-hartze eta jardura arrakastatsuak ikaslearen abilezien, okupazioen eskakizunen eta jardura horiek egiten diren inguruen arteko oreka egokiaren mende daude.

Kasu eta egoeraren arabera, terapia okupazionala hainbat modutara gauza daiteke: ikaslearekin arreta zuzena izanez, inguruaren aldaketa proposatuz, ekintza eta ariketetan moldaketak eginez, material bereziak ezarriz edota eskolako profesionalak trebatuz.




- Hona hemen adibide batzuk:
- Oreka arazoak dituen ikasle bat eserita dagoela jantzi eta erantzi egiten bada, bere burujabetasuna eta segurtasuna hobeto ditzake.
 - Eskuekin tresnei heltzeko arazoak dituen ikasle batek trebetasun hori hobeto dezake, tresnei pisua erantsiz edo ezaguri sentsorialak aldatuz (bibrazioa, ukia).
 - Garapen arazoak dituen ikasle batek salda koilararekin hartzeko gaitasunik oraindik garatu ez badu, katilua erabiliz har dezake salda.
 - Eskuetan trebezia ahula duen ikasle batekin oinarri motoreak eta sentsorialak lantzen baditugu, arkatza hartzeko modua hobetuko du.
 - Bere kabuz eserita egon ezin den ikasle batek komun ontzian eserleku berezia badauka, komunean bakarrik egoteko modua izango du.
 - Aulki gurpilduna erabiltzen duen ikasle bati, besteak beste, altuera egokitu dakioken okertzeko moduko mahai zabalagoa ipiniko zaio.
 - Ikasle batek gorputz jarrera egokia izateko behar dituen laguntzak eta mahai-aulki bereziak baditu, bere gorputz jarreraz arduratu beharrean, esku-besoen erabilera hobeto dezake, bai eta arreta ere.
 - Ezkertiarak diren ikasle askok arazoak izaten dituzte idazketarekin: okertzeko moduko mahaia erabiltzen badu-



te, eskumuturraren postura hobetzen dute, eskua idazten ari diren lerroaren azpitik doa, eta idazten ari direna ikus dezakete. Ezkertiarrentzako bereziki diseinatutako tresnak (erregela, arkatzorrozka...) erabiltzen dituztenean, zailtasun gutxiago izaten dute.

Artikulu honetan, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikaslearen arretari dagokionez, terapia okupazionalaren nondik norakoak jorratzen saiatu gara. Hala ere, hau guztia prozesu orokor baten barnean dago. Eta, besteak beste, ikaslearen arreta lantzeko, Hezkuntza Premia Berezien arloko aholkulariek, beharren eta egoeraren arabera, gure esku-hartzea edo eta beste profesional batzuen (fisioterapeuta, logopeda...) eskatzen dute.

Egun, Euskal Autonomia Erkidego-ko Hezkuntza Sailean 8 terapeuta okupazional ari gara lanean. ●



Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

otsaila
berriak

Unibertsitatean sartzeko gida berria



“Zure bizitzaren plangintza. Zure etorkizunaren protagonista izatea” izenburupean, argitaratu berria da unibertsitatean sartzeko gida.

Besteak beste, honelakoak aipatzen ditu: “Aukera gehiago izango duzu lan egiteko... nahi duzun lekuan.

Ikasi era dinamikoan eta kooperatiboan, zure parte-hartzean oinarritutako metodo aktiboen bidez...”

Datorren ikasturtean jarriko da indarrean Bolonia Plana unibertsitate guztietan. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak plan berriak ekarriko dituen aldaketei buruzko informazioa emateko gida berezia argitaratu du. Batxilergoko 2. mailako eta Lanbide Heziketako goi-mailako ikasleentzako artean banatuko da gida. Dena den, PDF formatuan dago eskuragarri www.hezkuntza.net helbidean.

Disko-liburua kaleratu dute Otxandioko eskolako ikasleek

Inguruko kantuak bildu dituzte Otxandiako eskolako ikasleek "Ala Kinkirrinera..." izeneko disko-liburuan. Urte oso bateko lanaren ostean argitaratu dute diskoa, eta eskolako haurrek ez ezik, hainbat artista ezagunek hartu dute parte lan horretan: Josu Zabala Hertzainak taldeko kide ohia, Bixente Martinez, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal...

Lanak, bi disko, marrazkiak eta abestien hitzak biltzen ditu eta 18 euroan eskura daiteke ondorengo e-posta helbidera idatziz: eskaerakinkirrinera@gmail.com



Kafe tertulia Gasteizen, Denon Eskola elkartearen egoitzan



Aurreko ikasturtean abiatutako Kafe tertulia ekimenak martxan jarraitzen du. Hain zuzen ere, datorren otsailaren 11an, osteguna, arratsaldeko 18:30etan berriro elkartuko dira Denon Eskolako egoitzan, kafe katilu baten inguruan. Guraso elkarteek elkarrekin informazioa eta esperientziak

kontatzea du helburu egitasmoak, eta gai berri baten inguruan hitz egingo dute oraingoan: *Ikastetxeetako jantokiak eta garraioa*. Haien egoera, arazoak, akatsak, beharrak, hobetzeko proposamenak... izango dituzte hizpide eta gaiaren inguruan hausnarketa egin eta iritziak trukatzeko tarte izango da.

EGako ahozko probaren simulazio bideoa www.euskaljakintza.com webgunearen eskutik

Duela urtebete inguru izan zuen Maite Goñi Ordiziako Jakintza Ikastolako irakasleak EGako ahozko azterketaren bideo baten berri izan nuen. EGako azterketaren atal horren nondik norakoak azaltzeaz gain, bideoan hainbat bikote ikus zitezkeen ahozko azterketa egiten.

Goñik, Euskara irakasgaia ematen du Jakintza ikastolan eta orain urte batzuk www.euskaljakintza.com webgunea jarri zuen martxan irakasgaia, soilik, ordenagailu bidez emateko. Goñik sustatutako webgunea hainbatetan izan da saritua. Lehen aipatutako bideoa material ezin hobea iruditu zitzaion Goñiri ikasleei erakusteko: “Izan ere, oso urduri joaten dira proba hori egitera, eta azterketa pausoz pauso ikus-tea oso lagungarria -eta lasaigarria, agian- izan zitekeela iruditu zitzaidan”, azaldu du webgunean.

Horrela, EGako arduradun batekin harremanetan ipini eta baimena eskatu zion bideoa EGA prestatzeko duten txoko berezian ipintzeko. Hainbat arrazoi tarteko, baimena ukatu zioten. “Dena den, ikasleei begira izugarritzko dokumentu grafikoak iruditu zitzaizkidan, egunen batean guk geuk antzeko zerbait grabatu-ko genuela pentsatu nuen. Aurreko asteburuan, tramankulu guztiak prestatu eta grabazioari ekin genion”, azaldu du webgunean.

Orain, www.euskaljakintza.com helbidean ikus daiteke simulazio bideoa, eta froga prestatzen ari direnek apur bat gehiago jakin dezakete atal horren inguruan. Dena den, Goñik berak zehazten duenez, jatorrizko bideo hartan ikusitako islatzen saiatu dira, baina ez dira sekula azterketaren barruan egon.



EOSren hezkuntza jarduerak bilduko ditu 'Musika Gela' ekimenak

'Musika Gela' izango da aurrerantzean Euskadiko Orkestra Sinfonikoa bere hezkuntza jardueren eskaintza biltzeko erabiliko duen marka. Urtarrilean aurkeztu zuten izen berria, eta dagoeneko Gasteizen eta Donostian finkatuta dauden *Musika Familiar* zikloa eta *Ikastetxeentzako Jarduerak* izenburuko ekimena bilduko ditu. Besteak beste, orkestraren egoitzara bisitak, ikastetxeentzako tailerrak, eta estreineko eskola-haurrentzako kontzertuak eskainiko ditu EOSk. Denboraldi honetan, orotara 17 musika topaketa izango dira.

Ikastetxeentzako jardueren baitan, lehen aldiz antolatu diren eskola-haurrentzako kontzertuak aipagarriak dira. Jarduera hori Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Miramongo egoitzan egingo da, eskola orduetan. Kontzertura joan aurretik ikasgeletan aurrez landu ahal izango da edukia. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak gida-didaktikoa prestatu du emanaldietara joatekoak diren ikastetxeentzako musika irakasleei aurkezteko.

EOSk azaldu duenez, 'Musika gela' sormena duen komunitate berri bat sortzeko bokazioz jaio da eta orkestraren webgunea izango du topagune. Musika Gela atalaren bidez informazio guztia jasotzeaz gain, Haur Txokoa bisitatu ahal izango da. Bertan, nahi duen orok, hainbat jolas interaktiboren bidez mundu sinfonikoa apur bat gehiago ezagutzeko parada izango du.



Ikastolen XVII. jardunaldi pedagogikoak

Kompetentzietan oinarritutako hezkuntza. Berritu eta hobetu izenpean egingo dira aurtengo jardunaldi pedagogikoak.

Kompetentzien ebaluazioa, irakaslearen profila eta IKTak jorratuko dituzte nagusiki.

Xabier Garagorrik eta Mikele Aldasorok *Euskal Curriculumaren* garapeneren prozesua ikastoletan zertan den azaldu eta aurrera begira dauden erronken gainean aritu dira.

Louvainako Unibertsitateko Xavier Roigiers egoera konplexuen bidezko kompetentzien ebaluazioaz arituko da. *Hezkuntza eraberritu ote liteke? Zeintzuk dira jorratu behar diren bide berriak?* Galdera horiei erantzuten aha-

leginduko da Alfonso Vazquez San Roman.

Ikastolen Elkarteko prestakuntza taldeak irakaslearen profilari buruz hitz egingo du.

Berrikuntzarako prest al gauden aztertuko du, berriz, Carlos III Unibertsitateko Jose Antonio Rodriguezek.

Etengabeko prestakuntzaz eta horren garrantziaz arituko da Montserrat Ventura, Bartzelona-ko Unibertsitateko irakaslea.

IKT kompetentzien lanketaren gainean, ikastolen IKT markoa agertuko du Josune Gerekak. Eusko Jaurlaritzako hezkuntza ordezkariak Eskola 2.0 planaren berri emango dute.



Belen Baztarrika eta Manu Aurrekoetxea jardunaldi pedagogikoaren arduradunak (Ikastola aldizkaria)

“Ikastola irekia” familekin komunikazioa eta harremana errazteko proiektuaren berri ere eskainiko da.

Noiz: martxoaren 9, 10 eta 11n

Non: Gasteizko Europa jauregian

Ahotsaren zaintza ikasgelan



Hezkuntza Ildo Berriak Fundazioak AHOTSAREN ZAINZAREN gaineko mintegi monografikoa egingo du.

Hizlariak Yanela Murua Garcia de Albeniz logopeda eta Colombiako Santafé de Bogotá Unibertsitateko Gladis Vargas Pérez irakaslea izango dira.

Edukiak: ikuspegi anatomiko-fisiologikoak, ikuspegi psikologiko-emozionalak, ikuspegi soziologikoak,

ahotsa lanerako tresna gisa, erabilera, arriskuak, ondorio patologikoak, ahotsaren zaintza, ahotsaren erabilerarako teknikak, arnasketa ahotsaren elikatzailerako gisa eta norbanako hobekuntzarako programa.

Noiz: martxoaren 4an eta 5ean

Non: Bilboko Plaza Barria, 4

Izena ematea: 902 431 179

“Pikler-Lóczy pedagogiaren gakoak” hitzaldia Bilbon



Urtarrilaren 15ean Bilboko Magisteritza Eskolan ‘Pikler Lóczy pedagogiaren gakoak’ hitzaldia burutu zen. Bertan, **Eszter Mózes** Budapesteko Lóczy Institutuko formatzailea izan zen, oso hitzaldi interesgarria eskaintzen. Sortu berri den *Euskal Herriko Pikler-Lóczy sarea* izan zen antolatzailea. pikler.loczy.sarea@gmail.com



UDALEKUAK 2010



DZANGA UDARA!

Proposamen honek jarduera-programa bat eskaintzen du 2010ko udako oporraldirako. Proposamena haurrei eta nerabeei dago zuzenduta, eta, besteak beste, jolasak, tailerrak, txangoak eta kirolak eskaintzen ditu. Aisialdi osasungarria, eraikitzailea eta burutsua dugu abiapuntu, izan ere, aisialdia heziketa-esperientzia bihurtzen dugu.

Programak aukera eta formatu desberdinak ditu:

• **Udaleku irekiak:** goizez eta/edo arratsaldez (bazkariarekin edo bazkaririk gabe), udal instalazioetan.

Orduategia: 09:00etatik 14:00etara / 09:00etatik 17:00etara.

• **Egonaldiak inguru naturaletan kokatutako aterpetxeetan.** (Sarria, Lekeitio, Berriz, etab.)



suspergintza
elkartea

Jarduerak eta edukiak

- Talde-dinamikak.
- Txangoak, jarduerak naturan.
- Igerilekua. Kirol jarduerak eta txapelketak.
- Tailerrak eta jolasak: adierazpenekoak, kulturalak, plastikoak, osasunekoak, etab.
- Jolas handiak. (Gynkanak, aztarna-jokoak...)
- Aparteko jarduerak.

Hezitzaile/ume ratioa:

hezitzaile 1, 10 umeko. (gutxi gorabeherako ratioa da; izan ere, egokitu egin daiteke, adin-taldean eta hartzaileen ezaugarrien arabera.



Giza taldea

Hezitzaile profesionalak, aisialdiaren esparruan zein gizarte eta kultur programen garapenean prestakuntza eta esperientzia handia dutenak. Ondoko ezaugarriak dituzte:

- Aisialdiko Zuzendari/Begiraleen titulu ofiziala.
- Prestakuntza espezializatua gai sozialetan: kultura aniztasuna, animazio soziokulturala, drogamenpekotasunen prebentzioa, etab.
- Euskara menperatzen dute lan egiteko eta eroso komunikatzeko.
- Esperientzia profesional edo boluntarioa aisialdian, umeekiko lanean, etab.
- Trebetasun sozialak, prestakuntza eta esperientzia zenbait arlotan (biologia, historia, kirola, osasuna, sorkuntza...).

UDAL EKINAK 2010



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen maiztzeo eztabidak utzi diguna...

>>> Eusko Jaurlaritzaren curriculum dekretu egitasmoak euskara eta gaztelania parekatuko ditu. Isabel Celaá Hezkuntza sailburuaren hitzetan, elebitasun orekatua lortzeko helburuarekin. Bide horretatik helburua betetzea posible dela uste al duzu?

> Soziologiaz ahaztuta

Hamarkadak daramatzagu euskaraz irakasten. Ereduak ezarri zirenetik, hiru zehazki, horien emaitzak agerian daude. B ere duen kasuan, bi hizkuntzei antzeko denbora kopurua eskaintzen zaienean, zaila da, oso zaila, bi hizkuntzak menderatzea. Logikaren kontra dagoela dirudi, baina hala erakusten dute emaitzek.

Ezagutu ditugu, dena den, B ereduari ikasi eta EGA gainditu duten ikasleak. Portzentaian, ordea, gutxi dira, ahalmen eta inguru berezia duten ikasleak dira. Hala ere, etxean euskaraz egiten ez badute, hitz egiteko zailtasuna agertzen dute. Zergatik ote?

Soziologian arakatu behar da. Zein inguru soziolinguistikoa bizi dira? Euskal Herrian, erdara denean erabilera hizkuntza nagusia (% 14 euskaraz), garbi da euskara harreman hizkuntza naturala izango duten guneak izan behar dituztela ikasleek, bestela, ezinezkoa litzateke aipatu "oreka" lortzea. Eskola da haur eta gaztetxo direnentzat horretarako gune egokiena, denek erabiltzen baitute, eta "orekatzeko" (eskubideetan berdintzeko), unerik eta gunerik preziatuena berau da. *Fausti*

> Faustik bete-betea asmatu du

Hezkuntzan zerbait izatekotan, zientifikoa izan behar da. Zientziak erakusten digunari kasu egin behar diogu, hezkuntzaren helburua gizartea hobetzea baldin bada behintzat. Emaitzak ezagutu, zergatiak ikertu, hobetzeko bidea bilatu eta praktikan jarri...

Egoera soziologikoan eta linguistikoan bilatu behar dira emaitzen gakoak. Izan ere, Euskal Herrian egindako ikerketa batzuen ondorioen arabera, euskara eta ingelesa ordu kopuru berdinez ikasita, ingelesa gehiago ikasten da euskara baino. Ingelesa ez dago gaztelaniarekin lehian, euskara, aldiz, bai. Hor adituen arrazonamendua. *Amaita U.*

> Katalunian bezala, motibo handiagoz

Katalunian eta Galizian bertako hizkuntza propioa da eskolako hizkuntza. Zer arazo dago hemen, bertako hizkuntza propioa, euskara, ez izateko? Bertako hizkuntza ezagutzeak herritarren kohesioan laguntzen du. Elkar ulertzea, bakoitzarena errespetatzea... Katalanez edo galegoz hitz eginez gero, gaztelania dakienak asko uler dezake. Euskaraz hitz eginez gero, aldiz, ez da tutik ere ulertzen.

Logikoena, demokratikoena, zentzudunena... herritar guztiek bertako hizkuntza propioa ezagutzea litzateke, ulertze maila on bat izatea behintzat. Horrela, bakoitzak nahi duen bezala hitz egitea erraztuko luke, besteak errespetatzea, ez inposatzea, ezta?

Maila nahikoa lortzeko euskaraz ikasi beharra dago. Bestela, jai! *Bego M.*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> "Inposaketarik Ez! Euskal Herriak Bere Hezkuntza" goiburupean, mobilizaziora deitu du martxoaren 13rako, Bilbon, EHBE Euskal Herria Bere Eskola herri ekimenak. Horretarako arrazoi nahikorik badagoela uste al duzu?

Partekatze proiektuak

Eskuartearen proiektu interesgarriak izango dituzue, ziur. Maiz, apalen batean ahaztuta geratzen dira, ordea, eta guk, hautsa kendu eta horiek partekatzera bultzatu nahi zaituztegu. Ikastetxeetan erabiltzen diren proiektuak, materialak, fitxak, irudiak, gidoiak, powerpointak, unitate didaktikoak... partekatze aukera duzue gure web gunean. Guztion artean, hezkuntza aberrasteko aukera dugu. Anima zaitzete besteekin PARTEKATZERA!

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoan Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoan harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak




Olagarro bat bainuontzian
Leire Bilbao / Morkots
ELKAR

“Ez dakit aitak zein plan duen olagarroarentzat. Baina nik badaukat bat, maskotatzat hartzea. Gurasoek, etxean ez dutela ez zakurrik ez katurik nahi esan izan didate beti. Baina ez didate olagarro bat hartzeko debekurik jarri. Beraz, bainuontziari leku egokia iritzi diot Erro bataiatzeko. Tapoia jarri, urez bete, gatza bota eta kito”. •



Korri, Xalto ta Brinko Jaizkibelgo itsasertzean
XERKA

Korrik, Xaltok eta Brinkok albiste harrigarria irakurri dute: espaziotik eroritako meteorito batek Jaizkibelgo harkaitzetan talka egin du eta inguruko bazterrak zeharo aldatu omen ditu. Hiru pailazok Jaizkibelgo itsasertzeko paraje ezkutu eta liluragarrienak ezagutuko dituzte txango magiko batean. Pailazo hauen abenturak biltzen dituen hamargarren liburua da hau. •



Afrikari zor dioguna
I. Barrenetxea / E. Mtz. Lizarduikoa
GAIK

Liburu honek Afrikari buruzko aurreiritziak baztertu nahi ditu. Besteak beste, gizadiaren historian, bioaniztasunean, kultur-aberastasunean eta beste hainbat baliotan egin dituen ekarpenak kontutan hartuz. Bestalde, galdera honi erantzuten saiatzen da: Afrikak baliabide izugarriak baditu, nola azal daitezke egun jasaten dituen pobrezia, izurriteak, goseteak eta gerrak? •



Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona?
Enkarni Genua / Jon Zabaleta
EREIN

Liburu honetan 7-10 urteko haurrentzako antzerki lan bat aurkituko dugu, erraz antzezteko modukoa. *Txanogorritxo* ipuin ezagunean oinarrituta istorio berri bat eraikitzeko aukera ematen du ama-semeen arteko istorio batetik abiatuta. Txanogorritxoren beste bertsio bat ezagutzeko prest? •



MacArthur-Bates Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda
UEU Udako Euskal Unibertsitatea
Ingelesez sortutako *MacArthur-Bates Communicative Development Inventories* tresnaren euskarazko egokitzapena egitea izan da ikerketa honen asmoa. Egileen hitzetan, tresna honen helburu nagusia haurren hizkuntza eta komunikazio garapen goiztiarra neurtzea da, eta gure kasuan euskara bereganatzen ari diren haurrena. •



Narrazioak eta olerkiak
Batzuk
BBK/EUSKALTZAINDIA
Liburu hau 2008. urteko Azkue sarietan irabazle suertatu ziren narratzen eta olerkien bilduma da. BBK Bilbao Bizkaia Kutzak eta Euskaltzaindiak antolatutako sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzeko asmoz sortuak dira eta liburu honetan 12 urte-tik 17 urtera bitarteko hamalau gazte-ren lanak aurkituko ditugu. •

... nora joango gara?

Uraren Interpretazio Zentroa Leitzaran bailaran galdua

Andoainen (Gipuzkoa), Leitzaran-go bailarako paraje ezin ederragoan dago Uraren Interpretazio Zentroa; hain zuzen ere, Leitzaran Bisitarien Etxearen barruan. Leitzaran ibaiko Biotopo Babestua eta bailara ezagutzeko aukera ematen du, uraren ikus-pegitik begiratuta, betiere.

Leitzaran ibaiak zeharkatzen duen bailarako natura eta kultura balioak bertatik bertara ezagut daitezke han. Uraren Interpretazio Zentroak bisitariengan ingurunea zaindu eta natura maitatzeko gogoia piztea du xede.

Horretarako, hainbat baliabide ipiniko ditu bisitarien eskura: ikus-entzuzkoak, informatika tresnak, erakusketa bereziak... Horien guztien bidez, bailararen nortasunaren berri modu atseginean, labur eta zehatz jaso ahal izateko. Bisitariak ez dute inoren la-



guntzarik beharko interpretazio zentroko erakusketa ikusteko.

Ibilbideak

Uraren Interpretazio Zentroan Leitzaran bailara apur bat ezagutu ondoren, prest gaude paraje eder horretan murgiltzeko. Zentrotik irten ostean, hainbat ibilbide egin daitezke Leitzaran-go bailaran barrena. Bisitarien etxeak hiru ibilbide gomendatzen ditu; hirurak balizatuta daude, eta informazio panelak dituzte.

Ibilbide berdea: "Uraren arrasean" du izena, eta 30 minutu baino ez dira behar egiteko. Unanibiako zubitik hasi eta Errotaberriraino, Plazaolako Naturbidera gerturatzea du helburua. Ez du inolako zailtasunik.

Ibilbide horia: "Ura eta Trentxiki"

izena jarri diote, eta 90 minutuan egin daiteke. Otietatik abiatuta, amuarrain haztegia, Olaberriko presa eta Bertxingo zentral hidrauliko txikia bisita daitezke; eta *Bertxingo bisera* izeneko lekuraino doa bidea.

Ibilbide gorria: "Jauzi handia" du izena ibilbide ikusgarri honek. Hiru ibilbideetan luzeena da, eta, zenbait zatitan, malda gehien dituen ere bai. Bi ordu behar dira ibilbidea egiteko. Bidean ur-jauziak eta kanalak ikus daitezke.

Eskaintza didaktikoa

Leitzaran-go Bisitarien Etxea gune hezitzailea da batik bat. Ikasleengan "ingurunearekiko atxikimendua pizteko eta ondareztat dugun inguru biofisikoa eta soziokulturala errespetatu dezaitezen", honako hezkuntza egitasmo



hauek prestatu dituzte hango ardura-dunek:

1. - OTIETA. Uraren Interpretazio Zentrorako eta Arrantza Eskolarako bisita.

Egun erdiko txangoa da, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat.

Uraren Interpretazio Zentrorakobisitan, ingurumen-hezitzaile batek, ikasleentzat diseinatutako material didaktikoaz baliatuz, zentroan barrena gidatuko ditu ikasleak, eta amurrain-arrantzale gisa egiten dituzten lehenengo urratsetan lagunduko die. Ikasleek arrantza-euliak egingo dituzte, tresneria prestatzen ikasiko dute... eta arrantzan egiteko aukera izango dute!

2. - PLAZAOLA. 24 kilometroko jaitsiera, bizikletaz, Leitzatik Andoaineraino.

Egun osoko txangoa izango da, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat da.

Autobus bat joango da taldearen bila ikastetxera, eta Leitzara eramango ditu, bizikleta eta guzti. Handik, hiru bat orduan, Plazaolako trenak hainbat alditan egindako ibilbidea zeharkatuz, Otietara iritsiko dira, Bisitarien Etxea dagoen tokira. Etxe horretan, Uraren Interpretazio Zentroa bisitatuko dute.

3. - OLLOKI. Bizikleta, Uraren Interpretazio Zentroa eta Arrantza Eskola.

Egun osoko txangoa da, bereziki, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat.

Andoingo tren geltokian abiatuko da. Han, taldearen zain egongo dira, bakoitzarentzako bizikleta batekin. Plazaolako trenaren ibilbideari jarraituz, Otietara iritsi arteko bidea egingo du taldeak; hantxe dago Leitzaran Bisitarien Etxea. Horren ondoren, Uraren Interpretazio Zentroa bisitatuko dute, eta Arrantza Eskolan arrantzale bikain bilakatzeko lehen urratsak egin ahal izango dituzte. Gero, bailaran barrena jarraitu ahal izango dute, eta Bertxinera, Inturiara eta, indartsu baldin badaude, Ollokiko geltoki zaharreraino joango dira. ●

LEITZARAN BISITARIEN ETXEA

Posta kutxa 38

Otieta parkea, Leizotz auzoa, 48 behea

20140 Andoain (Gipuzkoa)

Tel.: 943 300 929 -

leitzaranbisitarienetxea@leitzaran.org

Informazio gehiago: www.leitzaran.org webgunea



Ordutegia

- Ekainaren 15etik irailaren 15era eta Aste Santuan 14 egunean

Asteartetik larunbatera: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Igande eta jaiegunetan: 10:00etatik 14:00etara.

- Irailaren 16etik ekainaren 14ra

Larunbatetan eta zubietan: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Igande eta jaiegunetan: 10:00etatik 14:00etara.



atzeko atetik



Egoitz LASA

AKTOREA

Arreta galtzen du, ipurtarina da, eta lan gehiago egin dezake. Notak jasotzen nituen bakoitzean, nitaz definizio hori irakurtzen nuen. Bizitzako nire bigarren definizioa zen, lehenengoa “isiltzen ez den ume zikin hau” izan zela us-te baitut. Hasiera batean inolako arazorik ez, dena gainditzen bainuen. Arretagabea eta ipurtarina izatearen kontu horrek grazia ere egiten zien gurasoei. Lan gehiago egin dezake horrek, ez. Dena azken egunerako uzteko ikasketak teknika klasikoak ez zituen asetzen nonbait. Eguneroko pixka bat egitearen aldekoak ziren. Kasu egin eta soinketa-rekin hasi nintzen. Eguneroko pixka bat futboleko jolastan. Eta orain hemen nago: logikaren arabera, futbolari izan be-

Zertan zara ona?

harko nukeen, baina ez, 18 urtera arte inoiz egin ez nuen gauza batean ari naiz. Aktore lanetan. Izan ere, eskolan ez nuen inoiz antzerkirik egin. Arraroa dirudi, baina horrela da. Agian, eskolaurtean zerbait... baina ez dut oroitzen.

Orain, berriz, egundoko poza ematen dit, gutxi bada ere, antzerkia, musika edo dantza lantzen direla ikusteak, gaur egungo gizartearentzako izugarritzako garrantzia dutela iruditzen baitzait. Hezkuntzak norberak dituen gaitasunak garatzeko tresna izan behar du, horretarako motibazioa eta sormena landuz. Lagunei zertan diren txarrak galdetuz gero, dozena erdi bat erantzun jasoko dituzu di-da batean. Ni matematikan zero, adibidez. Baina, onak zertan diren galdetuta, erantzuteko arazoak dituzte gehienek. Bizitzaren zati handibat nahi ez duguna identifikatzen pasatzen dugu, nahi duguna deskubritzen pasa beharrean, eta hezkuntzak horretan lagundu behar du.

Horregatik, oso frustragarria da, adibidez, mundua kantari, dantzan edo piratarena eginez deskubritu nahi

duen haurrarentzat aulkian eserita egin behar izatea. Batzuk ipurtarinak gara eta, beraz, txarrak eserita egin behar den edozer gauzatan kontzentratzeko. Onak zertan garen edo zerekin gozatzin dugun deskubritzeko aukera dinamikoagoak izateak gehiagori irekitzen die atea. Eta ona da hori. Gure ezaugarri onenak topatzeak segurtasuna ematen duelako, horrek motibatu egiten duelako, eta motibazioak sormena garatzen duelako.

Sormena da edozein egoerari aurre egiteko dagoen tresna baliagarriena. Ez artearekin zerikusia duten gauzetarako bakarrik, baita gaur egungo gizartearen hain garrantzitsua den komunikaziorako, lan taldeen kudeaketarako, negozio bat abian jartzeko edo sukalde bat muntatzeko ere. Sormena eta motibazioa landuz, egoera eta ofizio guztietarako baliagarri den hezkuntza lortuko dugu. Bizitzari aurre egiteko prestatuko gaitu eta, agian, zoriontsu izateko. Bestela, irakasle izateko zerrendetan zain dauden lizentziadunak sortzen jarraituko dugu. ●



Gorputzaren protagonismoa azpimarratzeak, umeari berezkoen eta naturalen zaion mintzairaren bidez, bere bibentziak oro hartzen dituen mintzairaren bidez, hitz batean esateko jolasaren bidez espresatzeko ahalmena suposatzen du umearentzat.

Imanol Urbietta



Matrikula zaitez!

Aurrematrikula egiteko
epea:
Otsailaren 1etik
12ra arte

**zuk uste baino hurbilago,
nahi bezain urrun
hel daitezzen.**

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



KULTURA ARTEKO HEZKUNTZA

Etorkinen alaba-semeak eskolan



Otsailaren 27an (larunbata) DONOSTIAN - Martxoaren 6an (larunbata) DURANGON
Saio bera izango da bi tokietan. **Kopuru mugatua bi saioetan**

9:00etatik 14:00etara

Saioaren egitasmoa kultura arteko hezkuntzaren gaineko oinarrizko eduki batzuk (bai kontzeptualak eta baita jarrerazkoak eta prozedurazkoak ere) lantzea da. Halaber, parte hartzaileen hausnarketa eta autokontzientzia bultzatu nahi du ikasle etorkinen eskolatzearen gainean.

HELBURUAK (KONPETENTZIAK)

Parte hartzaileak:

- Kultura artekotasanarekin lotuta dauden oinarrizko zenbait kontzeptu ezagutu eta aplikatuko ditu.
- Kultur aniztasunari eta hezkuntzari buruz ikertzaileek egindako zenbait ekarpen ezagutuko ditu eta modu kritikoan baloratuko ditu.
- Beste kultura batzuetako pertsonetikiko dauzkan jarrerei buruz hausnartuko du, hezkuntzako profesional gisa, batez ere.

EDUKIAK

1. Errealitate kultura anitza eta haren hainbat ondorio:

- Autoktonoen hainbat kezka eta beldur
- Zer aldatu da eskolan inmigrazio berriarekin?
- Inmigrazioa eta eskola inklusiboa

2. Kultura artekotasunerako hezkuntza:

- Zer da "kultura arteko hezkuntza"?
- Zer da "kultura"? Nola landu gelan?
- Kultura eta parekotasun eza

- Akulturazio prozesua eta akulturazio estresa. Gizarte berrian moldatzea
- Autoktonoen jarrerak etorkinekiko
- Estereotipoak
- Identitatearen eraikitzea

METODOLOGIA

Saioa metodologia aktiboan oinarrituko da. Bertan, gidariak aurkeztuko dituen edukiak eta ikasleek irakurriko dituzten materialak landu eta debatituko dira, eta parte hartzaileen ideiak, kezkak eta ezagutzak elkartrukatzeko gunea izango da. Hainbat kasuren azterketa egingo da.

* **Amelia BARQUIN** (Donostian). *HUHEZI, Mondragon Unibertsitateko irakaslea.*

* **Monika MADINABEITIA** (Durangon). *HUHEZI, Mondragon Unibertsitateko irakaslea.*

Informazioa eta izena ematea
943 371 408
www.hikhasi.com